

## "Gorputzak laguntzen badit, aurten pare bat marka egiteko esperantza dut"

**Kirola** • Plazetara bueltatu denetik, Urdax Magunazelaia harri jasotzaileak Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapelketak irabazi ditu, baina ez da horregaz konformatzen. Herri kiroletako "saltsa" gustuko du eta zeresana ematen jarraitzeko prest dago. Hainbat marka apurtzea du buruan, eta gogotsu dago onenekin lehiatzeko plazan. • **2-3**



## "Behar asko egin dugu urte hauetan eta deskantsatzeko ordua ailegatu zaigu"

**Komertzioak** • Leaniz okindegiko Maite Leanizbarrutia Etxeitak eta bere ahizpa Loreak erretiroa hartuko dute martxoan. Okin eta gozogile elorriarrek betiko amatatuko dituzte labeak, 28 urteko ibilbidearen ondoren. Otsailaren 3ko San Blas azoka euren ibilbideko azken feria izango da. • **15**



## Atsekabea Durangaldean

**Ezbeharra** • Iker Bilbao alpinista durangarra Patagoniako Fitz Roy mendian hil da, elur-jausi batek harrapatuta. Ezbeharrean Amaia Agirre urnietarra ere hil da. • **4**

### Gehigarria



San Blas  
2023

**DURANGO**

**HIZKUNTZA  
ESKOLA OFIZIALA**

**MATRIKULA LIBREA ZABALIK**

Otsailaren 1etik 8ra (13:00ak arte)

On-line

36,18 €

Informazio gehiago:  
eoidurangoheo@hezkontza.net  
94 620 33 42 - 94 681 66 45



**Urdax Magunazelaia Agirre**

Harrijasotzailea

ABADIÑO | 1997

heldu nintekeela ikusten nuen. Eta zer politagorik hamabi botatzea eta marka hobetzea baino! Lehenengo helburuetariko bat hori dut. Gero, Urtainek kubiko handiagaz markak ditu, Goenatxok ere bai... Gorputzak laguntzen badit, aurten pare bat marka egiteko esperantza dut.

**Aimar Irigoien eta biok showman-ak eta harri jasotzaile indartsuak gara, ikusteko erakargarriak, eta holako bi plazan batera ikustea gustagarria da**

**Aimar Irigoienek arduratuta egon behar luke bere Euskal Herriko markagaitik?**

Tira, Aimarrek askotan erakutsi du nor den harri jasotze munduan. Bai harri handietan, bai harri txikietan, harri jasotzaile itzela da, egundoko markak egindakoa. Esango nuke Aimar ez dugula ehuneko ehunean inoiz ikusi. Azken urteetan nahiko lasai ibili dela zirudien. Oraindino 36 urte gaz, ondo prestatuta, susto batzuk eman ditzake. Aimar arduratuta? Igual neuk ere arduratu behar nuke. Biok maila handia eman dezakegun kirolariak gara.

**Bueltatu zarenetik plaza berean lehiatu zarete?**

Oraingoz ez. Ni beragaitik bueltatu nintzen Euskal Herriko txapelketara. Bere erakustaldi baten ondoren, solasean genbiltzala, Euskal Herri-kora joatera animatu ninduen eta nik baietz esan nion, bere moduko bategaz indarrak neurtzeak ilusioa egingo zidala. Baina azken unean lesionatu egin zen eta ez genuen aukerarik izan. Ea datorren urtean posible den.

**Zaleak desiratzen daude zuek biok plaza berean ikusteko.**

## "Pertsona maitatua sentitzen naiz herri kirolen munduan; plazetan igartzen dut berotasun hori"

Harri jasotze mundura bueltatu denetik, Urdax Magunazelaia Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapelketak irabazi ditu

**HARRI JASOTZEA** • JOSEBA DERTEANO

Umetan hasi eta 16 urtera arte, harri jasotze munduko promesarik handiena bihurtu zen Otxandion bizi den abadiñarra. Bere marken albisteak ohikoak ziren hedabideetan. Apurka-apurka, jolas modura hasi zena betebeharrak bihurtu zitzaion eta harri jasotzea uztea erabaki zuen, presiotik ihesi eta lasaitasun bila. Sei urteko parentesiaren ondoren, 2020an plazetara bueltatu zen. Harrezkero, Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapelketak irabazi ditu eta ez da konformatzen. Helburu gehiago ditu aurretik.

**Euskal Herriko txapelketan garaipena sutuki ospatzen ikusi zintugun. Irudi horien atzean zer sentimendu dago?**

Zerura begiratu nuen momentua aitagaitik da. Aita joan zitzaigun [12 urte zituela hil zen] esan nuen Euskal Herriko txapel bat eskaini gura niola. Txapelketan aurten debutatu eta txapel hori aurten bertan eskaintzea... niretzat ez dago hori baino poztasun handiagorik. Horixe da argazki horren esangura, Gotzon Magunazelaia aitari eskaintzen diodala. Beti alda-

menean izan nuelako, botilero, laguntzen eta umetako nire buruko min denei eusten.

**Bueltatu zarenetik, pozik zabilta? Harri jasotzeak bila zenbiltzana ematen dizu?**

Bai, nik beti maitatu izan dut herri kirolen mundua, ume-umetatik. Egia esanda, eskatzen diodan guztia ematen dit orain. Baina ez harri jasotzeak bakarrik, baita plazan sortzen dudak giroak ere. Pertsona maitatua sentitzen naiz herri kirolen munduan. Plazetan igartzen dut berotasun hori eta oso polita da. Askok asebetetzen nau.

**Urtea hasi berri da. Zer helburu dituzu 2023ari begira?**

Orain geldirik egon beharko dut apur batean. Hernia batek irten dit zilbor inguruan. Seguruenik ebakuntza bat beharko du. Gaztea naiz, aurretik 10-15 bat urte ditut herri kirolatan gerra emateko, eta behinena patxadaz errekuperatzea da. Hile eta erdi edo hile bi barru berriro martxan egon naitekeela diote medikuek.

Gero, lehenagoko harri jasotzaileen marka batzuk hobetzea

dut helburu. Gaur egunean gutxi ikusten da hori. Horregaz batera, Euskal Herriko txapelketan Aimar Irigoien handiaren marka hobetzea ere gustatuko litzaidake. Gorputzak eta osasunak laguntzen badirate lortu daitezkeen helburuak direla pentsatzen dut.

**Harri desberdinetan dauden markak hobetze horretan, badago baten bat bereziki begiz jota duzuna?**

Goenatxo anaiek badute marka bat, hiru minutuan hamaika jasoaldi egitea 200 kiloko harriari. Nik txapelketan hamar egin nituen. Denbora aldetik eta fisikoki hamaikara



Urdax Magunazelaia Euskal Herriko txapelketan, Asteasun, iazko abenduaren 16an.

Bai, argi eta garbi. Azkenean *showman*-ak eta harri jasotzaile indartsuak gara, ikusteko erakargarriak, eta horrelako bi plaza berean ikustea gustagarria da.

**Txapelketei eta bakarkako markei buruz aritu gara, baina zer diostazu apustuei buruz? Zabalik duzu apustuen atea?**

Apustuak ere herri kiroleko saltza dira. Ateak zabalik ditut, bai. Sekula ere ez dut plazan apusturik egin eta estreinalditxo bat polita litzateke.

**Iazko Gipuzkoako txapelketan zure ibilbideko lehenengo txapelketa ofiziala irabazi zenuen.**

Gainera marka jarri genuen, bai. Baten batek galdetu dezake ea zelan aritu nintzen Gipuzkoakoan bizkaitarra izanda. Bada, Bizkaian egoera apur bat baxu ikusten nuen eta niri saltza gustatzen zaidanez eta saltsarik barik behar den moduan prestatzen ez naizenez, Gipuzkoa aldean probatzea erabaki genuen. Aimar Irigoieni marka kendu izana motibazio dosi bat izan zen niretzat eta Euskal Herriko animatu ninduen.

**Bost bat urtez harri jasotze mundutik aldentuta egon zinen. Pentsatu duzu inoiz parentesi luze haren ondorioz bidean geratu diren txapelei buruz?**

Horrek ez nau arduratzen. Orain bost urte saltza gehiago zegoela, horretxek ematen dit pena. Goi mailako harri jasotzaileak, Irigoien, Eizmendi eta horrelakoak urteetan aurrera doaz, seme-alabak dituzte, baita euren lanak ere... Azkenean, ezin zaitezke prestatu 25 urte zenituen modura. Horrek ematen dit ernegu apur bat, ez ditudala euren onenean harapatuko. Baina, tira, goi mailako kirolariak dira eta ondo prestatuko dira, seguru.

**Harri jasotzaile gazteen artean bada-gore zure arretera erakarri duenen bat?**

Bat edo beste ikusten dut, baina lehenagoko saltsarik ez dut ikusten. Imanol Lartain indartsu dator. 17 urte gaz 210 kiloa bota du lepora. Tira, ia hurrengo urteetan gehiago datozen, badut horren esperantza.

Emakumeak ere indartsu dator, maila harrigarrian dabilta. Ni hasi nintzen sasoiaren Miren Urkiola, Mari Jose Sardon eta Idoia Etxebarria bikain zebiltzan. Baina horiek utzi zutenetik Udane Ostolozoa baino ez zen ibili urte batzuetan. Gerora, Karmele Gisasola eta gehiago etorri dira eta berriro saltza badagoela ikusten da.

**Iraganari buruz ere galdetu gura dizut. Zure umetako markei egunkarietako makina bat titular hartu zituzten. 'Obelix euskalduna' eta horrelakoak irakurri zitezkeen. Zer punturaino eragin zizun inguruko zarata hark?**

Horrek guzti horrek eragindako presioa sentitzen nuen, bai. Ez zait fama gustatzen. Lagunekin buelta bat ematera irteten nuenean denen

bistara nengoen, ezin nintzen trankil egon. Hori izan zen harri jasotzea uztearen arrazoietariko bat.

**Orain hobeto daramazu?**

Bai, hobeto daramat. Bizitzak erakutsi egiten dizu eta beste eskarmentu bat dut orain. Gauzak beste era batera eramaten ikasten duzu.

**Zein unetan erabaki zenuen harri jasotzea uztea?**

16 urte gaz. 15egaz marka handi bat jarri nuen, telebista eta hedabide asko atzetik nituen, jendea marka berriak eskatzen... Ama sostengu handia zen niretzat, baina, tira, ez zen kirol mundukoa, ez zuen mundu hori barrutik ezagutzen eta ez genuen egoera kudeatzen asmatu. Aita plazagizona zen eta bazekien ni baretzen, baina ordurako joanda zegoen. Momentu batean apur bat bakarrik sentitu nintzen. Orduan dena pikutara bidaltzea erabaki nuen.

**Herri kiroleko kirolaria ez dut behar moduan baloratuta ikusten. Gure kontura dirua egiten dabilen aurpegi handi asko dagoela uste dut**

**Zeuk erabaki zenuen bueltatzea ala ingurukoek animatu zintuzten?**

Ingurukoek animatu ninduten. Denbora horretan boxeoa eta kontaktuko kirolean aritu naiz eta fisikoki nahiko ondo ikusi ninduten. Nigaitik baino gehiago, ingurukoek emandako bultzadagaitik izan zen.

**Boxeoa guztiz baztertu duzu?**

Orain hobby bat baino ez da niretzat. Umetatik gustatu izan zait boxeoa eta asko erakutsi dit: neure haserreak bideratzen, diziplina hartzen, sufritzen ikasten... Gainera, Arkaitz Viaña nire entrenatzaileagaz oso hartu-eman ona dut eta oraindik asko laguntzen dit.

**2020an herri kiroleko bueltatu zinenean, Abadiñon izan zenuen lehenengo saioa, zure sorterrian. Zelan gogoratzen duzu egun hura?**

Oso nerbioa egon nintzen. Plazara topera beteta, denak ezagunak... baina oso momentu polita izan zen; entrenamendu gutxigaz etxean egindako lanak hobetu genituen.

**Jose Antonio Gisasola 'Zelai'. Zelako garrantzia izan du zigan eta zure ibilbidean?**

Handia! Niretzat Jose Antonio bigarren aita bat da. Zortzi urte gaz beragaz hasi nintzen prestatzen. Arlo askotan ikaragarri lagundu didan pertsona da. Beti hor dago behar dudanean. Herri kirolean ezagutu dudana pertsonarik onenatarikoa da.

**Baina gaur egun ez zabilta beragaz entrenatzen. Gipuzkoa aldean zabilta, ezta?**

Tira, Zelai beti dut alboan, botilero. Bera botilero ez badut ez naiz txapelketara irtengo, hori argi dut. Bera da nire lasaitasun puntua. Baina, orain, astean birritan Oriora joaten naiz, bai, Joseba Ostolazaren harri jasotze eskolara. Oso gustura nabil eta asko eskertzen diot laguntza Josebari, eta hango gainerako denei.

**Zelan ikusten duzu herri kirolen mundua eta zelan hobetu daiteke?**

Panorama bastante triste ikusten dut. Herri kiroleko kirolaria ez dut ikusten behar den moduan zainduta eta baloratuta. Gure kontura diru asko egiten dabilen aurpegi handi asko dagoela uste dut; dirua egin izan duena, behintzat, gaur egun herri kirolak ez duelako sasoi bateko diru ituririk. Enpresa pribatuek aurpegira barre egiten digutela deritzot. Lehenengo kirolaria zaindu behar litzateke, eta gero, dirua sobratzen bada, poltsikoak bete.



Joan zen zapatuan, Bakixako jaietan egindako erakustaldia.

# PLUSDENTAL

Julio Bernardo Gonzalez doktorea

PSE: 199/17

ODONTOLOGIA DIGITALA  
HORTZ-INPLANTEAK EGUNEAN BERTAN, PUNTURIK GABE  
ORDENAGAILUZ GIDATUTAKO KIRURGIA  
AIRFLOW PERIODONTZIA  
SEDAZIO BIDEZKO TRATAMENDUAK

24 ORDUTAN BERMATUTAKO ARRETA

DURANGO ANDRA MARI KALEA 4  
944 008 235 - 688 766 973

GALDAKAO LAPURDI KALEA 18  
944 575 233 - 629 972 088

ESKATU ZURE HITZORDUA BAITA WHATSAPPEZ ERE



Fitz Roy. ESPAINIAKO MENDI FEDERAZIOA.

## Iker Bilbao alpinista durangarra hil da, Fitz Roy mendian elur-jausi batek harrapatuta

Patagoniako gailurra igo ostean jazo zen ezbeharra; Bilbaogaz batera, Amaia Agirre ere harrapatu zuen elur-jausiak; Josu Linaza taldeko hirugarren mendizalea bizirik irten zen

### DURANGO • ANBOTO

Albiste txar batek Argentinara begira ipini du Durangaldea. Izan ere, Iker Bilbao mendizale durangarra Patagonian izandako mendi istripu batean hil da. Joan zen eguenean gertatu zen ezbeharra, urtarrilak 19. Argentina eta Txile arteko mugan dagoen Fitz Roy mendia eskalatu ostean, hau jaisten zebiltzala, elur-jausi batek harrapatu zuen hiru kideko taldea; Bilbaogaz batera, Amaia Agirre urnietarra (Gipuzkoa) eraman zuen elur-jausiak; Josu Linaza igorretarra (Bizkaia) onik atera zen ezbeharretik, eta El Chalten herrira jaitsi ahal izan zen abisua ematera. Eguraldi-gaitik, El Chaltengo Sorospen Batzordeak bertan behera utzi zituen erreskate lanak, eta 48 orduren ostean gorpuak bilatzeak suposatzen zuen arriskuagaitik amaitutzat eman zuten erreskate operazioa.

29 urte izan arren, esperientzia handiko mendizalea zen

Iker Bilbao. Besteak beste, eskalaten Alpeetako, Kaliforniako eta Marokoko mendietan. Eskiatzen Norvegiar ere ibilitakoa zen. Suhiltzailea zen eta Kanpezuko (Araba) parkean lan egiten zuen. Durangoko Ourdaiby elkarteak kidea zen. Amaia Agirre urnietarra ere gaztea zen

### Abadiñoko -bertan bizi zen Bilbao- eta Durangoko udalek babesela helarazi gura izan diote familiari

(31 urte), baina honek ere esperientzia handia batu du urteetako jardunagaz. Huescan (Espainia) bizi zen eta Espainiako Federazio Emakumezkoen taldeko kidea zen. Ezbeharra eragina izan du Durangaldean, eta baita goi mailako alpinisten artean ere. Besteak beste, Iker eta Eneko Pou anaiek atsekabea agertu zuten sa-

re sozialetan: "Etorkizun handiko bi alpinista galdu ditugu". Horma tenteko eta zaileko mendia da Fitz Roy, eta lorpen handia da eskalatzailerentzat; zailtasun teknikoek eta eguraldi makurrak "munduko mendirik gatxenetarikoak" egiten dute, adituen esanetan; 2006an, Pou anaiek hiru mendizalaren erreskate lanetan parte hartu zuten. Eurak ere han ziren, gailurrera igo guran.

### Agintarien babesa

Urtarrilaren 24an, Argentinako Gobernuak Bilbaoren eta Agirre-heriotza agiria sinatu zuela ziurtatu zuen Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakariak prentsa agerraldi batean. Ekitaldi berean, doluminak eman zizkien bien senideei. Bestalde, Abadiñoko -bertan bizi zen Bilbao- eta Durangoko udalek "atsekabea" azaldu dute asteon. "Gure babesik zintzoena helarazi gura diegu familiari eta gertukoiei", azaldu dute euren oharretan.

## Durango emakumeen kartzelan errepresaliaturiko biktimak omendu dituzte

Lore eskaintza egin eta kartzelan hildako emakumeen eta umeen izen-abizenak ipini zituzten plaka batean

### DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango Udalak, elkarte feministek eta memoria historikoa lantzen duten eragileek omenaldi ekitaldia egin zuten zapatuan, emakumeen kartzelan izandako biktimak gogoratzeko. Ekitaldia Nevers ikastetxearen aurrean egin zuten. Bertan, lore eskaintza

egin eta plaka bat ipini zuten kartzelan hildako emakumeen eta umeen izen-abizenekin. Ekitaldian Maria Gorosarri kazetari eta irakasleak, Leire Vargas idazleak eta Ixone Aroma dantzariak parte hartu zuten, besteak beste. Andreak eta Gerediaga elkarteak ere bertan izan ziren.



Dantzari talde batek '100 alargunen dantza' egin zuen ekitaldian.

## Abesti feministen lehiaketara aurkezteko epea, zabalik

Finala martxoaren 18an egingo da, Plateruenean. Lehiakideek zuzenean abestuko dituzte euren kantak

### DURANGO • E.H.

Genero aniztasuna gorensten duten kantak, desberdintasunak azaleratzen dituztenak zein esteotipoak saihesten dituztenak. Hori guztiak eta gehiago. Durango Udalak abesti feministen lehiaketa antolatu du. Aurtengo edizioa bosgarrena izango da eta finala Plateruenean jokatuko da, martxoaren 18an. Lehiaketara kantaren bat aurkeztu

gura duenak horretarako aukera zabalik izango du otsailaren 17ra arte. Gero, martxoaren 7tik martxoaren 18ra, herritarrek abestirik gustukoena aukeratu ahal izango dute *Durango Berdintasuna* izeneko Facebook orrian. Hainbat sari dago jokoan. *Anboto.org* atarian kontsultatu daitezke. Lehiaketarako izena *m8lehiaketa@gmail.com* helbidean eman behar da.

**anboto**

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2023ko urtarrilaren 27a  
21. urtea - 922. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



## Julián Ríos ez da maiatzeko hauteskundeetara aurkeztuko

**DURANGO • AITZIBER BASAURI**

Durango alkateorde eta Herriaren Eskubidea taldeko buru denak udal politika utziko du legegintzaldia agortzean. Julián Ríosek berak hedabideetara bidalitako oharrean jakinarazi du instituzioetako politika utzi eta lan mundura bueltatuko dela, gizarte hezitzaile modura behar egitera. Ríosek dio erreleboa "bermatuta" dagoela. "Durango udal txikiaren zortzi urtez lanean egon ondoren, politika egiteko beste modu bat posible dela erakutsi dugu. Eta gogoia eta indarra ditugu udal mugimendu ilusionagarri honegat jarraitzeko", azpimarratu du. Ríosek "kalean" jarraituko du politika egiten.



## Zornotzako EAJk udal hauteskundeetarako hautagaiak aurkeztu ditu

**ZORNOTZA • AITZIBER BASAURI**

Zornotzako EAJren afiliazioak maiatzeko diren udal hauteskundeetara aurkeztuko diren hautagaien zerrenda onartu du. Gaur egun Gizarte Ekintzako eta Berdintasun arloko zinegotzia dena izango da zerrendaburua, Ainhoa Salteirain Gandarias. Beste 20 hautagaigaz osatzen du zerrenda. Horien artean daude legegaldi honetan zinegotzi diren Anartz Gandiaga Hirigintza zinegotzia, Ogasun arloko Miren Martiarena ordezkaria eta Euskara arloko Amaia Aurrekoetxea. Zornotzako egungo biztanleriaren "isla" den zerrenda osatu duela dio EAJk. Zerrendakideen %60 emakumeak dira.

# Zornotzako gazte baten jazarpena salatzeke mobilizazioak jendetza batu du

Gazte talde batek aniztasun funtzionala duen 18 urteko gaztea jazarri zuen orain aste bi



Mobilizazioa herriko plazan hasi eta ondoko biribilgunean amaitu zuten.

**ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO**

Joan zen domekan, Zornotzako udal plaza txiki geratu zen herriko gazte batek jasandako jazarpena salatzeke. 30 bat gazteek Haitz izeneko 18 urteko gaztea —aniztasun funtzionala du— jazarri zuten orain aste bi. "Kale osoan zehar jazarri zuten, bere atzetik korrika eta irainka", familiako lagun batek kontatu zuenez. Horrez gainera, gazteak umetan ere jasan zuen jazarpena, lodi egoteagaitik. "Aniztasun funtzionala izateagaitik edo lodi egoteagaitik edo edozer dela ere, ez al dugu mundu honetan egoteko eskubiderik? Orain Haitz izan da, baina bihar zuei edo ingurukoren bati gerta dakizueke", azaldu zuen familiaren bozeramaileak. Plazan irakurritako mezua txalo zaparrada batez amaitu zuten.

## Amorebonoek 620.000 euroko eragin ekonomikoa utzi dute

Zornotzako Udalak egokitzat jo zuen Amorebonoen iazko kanpaina; abenduaren 15ean amaitu zen

**ZORNOTZA • E.H.**

Amorebonoen iazko kanpaina abenduaren 15ean amaitu zen eta Zornotzako Udalak balantzea egin du. Zirkulazioan ipini ziren 32.000 bonuetatik 30.900 baino gehiago Zornotzako komertzioetara trukatu ziren, ia %96,5 inguru. Hori kontuan hartuta, udalaren kalkuluen arabera kanpainak 620.000 eu-

roko eragin ekonomikoa utzi du establezimenduetan. Udalak herriaren erantzuna txalotu du, Amorebonoak tokiko dendetan eta ostalaritza establezimenduetan trukatzegaitik. Merkatariek eta ostalariek "laster" eman ahalko dute izena 2023ko kanpainarako, Esti Martiartu Sustapen ekonomikoko eta enplegu zinegotziaren esanetan.



31.000 bonu trukatu dituzte.



## Gure ikasleen ahotan

**"Unibertsitatearen ezaugarri nagusietako bat hobetzeko eta etengabe eboluzionatzeko gogoia da"**



**NEREA FALCÓN**  
(Durango)

Ingeniaritza Informatikoa ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.

**Non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?**  
Ikasketak Durango San José Jesuitetan egin ditut. Zaletasunez, saskibaloian jokatzeko gain bi talde entrenatzen ditut. Hizkuntzak ikastea ere gustatzen zait, eta ingelesa eta frantsesa ikasten ari naiz. Azkenik, lagunekin egotea eta beraiekin plan ezberdinak egitea ezinbestekoa da niretzat.

**Zergatik aukeratu zenuen Informatika gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?**

Gradu hau aukeratzera bultzatu ninduen munduan zehar informatikaren inguruan dagoen premia handia izan zen, informatika esparru guztietan baitago. Esan beharra dago, gurasoek txikitatit informatikara hurbildu ninduten, nire aita eta ama ingeniari informatikoak dira eta. Argi neukan Mondragon Unibertsitateari joan behar nuela, hainbat arrazoiengatik: irakasleen eta ikasleen arteko gertutasuna, taldeko lanetan oinarritutako ikasketen prozesua eta PBLa, non ikasgai guztietan ikasitakoa praktikan jartzen den proiektu batean.

**Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?**

Positiboa izan da. Kanpoko jendea ezagutzeko aukera izan dut eta, hori gutxi balitz, informatikari buruzko gauza berri asko ikasten ari naiz. Aipatu behar dut ahaleginak egin behar izan ditudala irakaskeriaz gainditzeko eta kurtsuak gogorak direla, baina saiatua eta langilea izanik, atera daitezke.

**Nola definituko zenuke Mondragon Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasketen metodologia?**

Taldean lan egiteari ematen dioten balio oso garrantzitsua iruditzen zait. Orain arte landu ditudan PBLetan, taldeka egindako proiektu batek emaitza hobea izatea eragiten duela ikusi dut. Proiektuko tutoreek, gainera, proiektua bide onetik eramateko gidatzen eta aholkatzen zaituzte. Horretaz gain, ikasle bakoitzari tutore bat esleitzen zaio. Eta lauhileko bakoitzean tutoreak hiru feedback saio egiten ditu ikaslearen egoerari buruz hitz egiteko.

**Unibertsitateak zer da gehien gustatzen zaizuna?**

Liluratu egiten nau talde-lanari ematen dioten garrantziak eta ikasleok lan bakoitzaren ondoren jasotzen dugun feedback-ak. Unibertsitatearen ezaugarri nagusietako bat hobetzeko eta etengabe eboluzionatzeko gogoia da. Horregatik, lauhileko bakoitzean, ikaslearen artean irakasleei, erabilitako metodoei eta gainerakoiei buruzko iritzierak formulario bat egiten da, eta bertan inplementatzeko edo aldatzeko aukerak iradoki ditzakezu.

**Ez zabilta DUAL egiten ari, baina zer dakizu DUAL ereduari buruz?**

Lan Ikaste Partekatzea (LIP) egiten ari naiz. DUAL ez izan arren, esperientzia oso polita eta gogorra da. Ikasketak eguneratuta eraman behar dira, egunean zehar denbora gutxi gelditzen delako ikasteke. Nire ustetan, LIP egitearen abantaila nagusia da lan munduari buruz asko ikasten duzula eta, aldi berean, graduari buruz ere bai.

# Primal Fear talde alemanak kontzertua emango du, ekainaren 24an, Abadiñoko Koba Live jaialdian

Sugaar musika taldea Koba Live jaialdiaren bigarren edizioa antolatzen dabil, Abadiñoko Udalaren laguntzagaz



Primal Fear talde alemana.

**ABADIÑO • ARITZ MALDONADO**

Abadiñoko Koba Live jaialdian Primal Fear talde alemanak joko du; Espainiako estatuan joko duten kontzertu bakarra dela iragarri du Abadiñoko Udalak ohar baten bitartez. Ekainaren 24an izango da metal eta rock jaialdia.

Sugaar musika elkarteak antolatu du aurten ere Koba Live jaialdia, Abadiñoko Udalaren laguntzagaz. "Estatu osoan jaialdien eskaintza handia da eta etorkizunera begira handiak izan ahal izateko, anbiziotsuak izan gura dugu 2023 honetan. Urte garrantzitsua da aurtengoa, hazi eta egonkortu gura dugu, eta hori ikusleen parte hartzearen arabera izango da", azaldu du Ser-

gio Correa Sugaar elkarteko arduradunak. Argi Abad Abadiñoko kultura zinegotziaren berbetan ere apustu garrantzitsua egin dute jaialdiaren alde. "Koba Live apustu garrantzitsua izan zen 2022an, eta hazten jarraitzea

**"Urte garrantzitsua da Koba Liventzat aurtengoa, hazi eta egonkortu gura dugu"**

gura dugu. Ziur gaude Primal Fearrek gure jaialdia metalaren Estatuko agendaren gorenean jartzen lagunduko duela.

Iazko edizioan Vita Imana, Elbereth, The Faithless, The Kraven, Orion Child, Vhaldemar eta Unholy Covers taldeek parte hartu zuten. Aurtengo ediziorako Primal Fear eta El altar del Holocausto taldeak iragarri dituzte, oraingoz.



Atxondoko udaletxea.

## Atxondon tailerrak antolatu dituzte Plan Orokorren aurrerapena herritarrei azaltzeko

Lehenengo batzarra aste honetan egin dute. Hurrengo batzarrek eta tailerra urtarrilaren 30ean egingo dituzte

**ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Atxondoko Udala batzar irekiak egiten dabil herritarrekin, haiei Hiri Antolamendurako Plan Orokor berria azaltzeko. Atxondoko udaletxean egiten dabilta batzarrek, eta, Atxondoko Udaletik jakinarazi dutenez, auzokideek izan ditzaketan zalantzei eta kezkei erantzuteko antolatuko dituzte.

Lehenengo batzarra astelehenean egin zuten eta bertan Hiri Antolamenduraren Plan Orokorren aurrerapenaren aurkezpen publikoa egin zuten. Datorren astelehenean, urtarrilak 30, 16:00etatik 19:00etara ordua hartu duten herritarrekin batuko dira eta, ostean, 19:00etan, natura-inguruneari eta kultura ondareari buruzko tailerra emango dute.

Otsailaren 6an, 13an eta 20an ere egingo dituzte batzarrek herritarrekin, 16:00etatik 19:00etara. Eta tailerrak ere emango dituzte. Otsailaren 6ko tailerra azpiegituri eta ekipamenduei buruzkoa izango da, otsailaren 13koa jarduera ekonomikoei buruzkoa, eta otsailaren 20koa etxebizitzari buruzkoa. Tailer guztiak 19:00etan izango dira. Herritar guztiek joateko aukera izango dutela azaldu du udalak pentsa oharrean.

## Askotariko ikastaroetan izena emateko aukera Otxandion

Saio batzuk egun bakarrekoak dira eta beste kirol ikastaro batzuek lau hilabeteko iraupena dute

**OTXANDIO • J.D.**

Otxandion askotariko kirol ikastaroetan izena emateko aukera dago urtarrilaren 27ra bitartean. Batzuek otsailetik maiatzera arteko iraupena dute eta beste batzuk egun bakarreko saio bereziak dira. Izen-ematea udaletxean egin daiteke.

Egun bakarreko saioen artean honako hauek daude: gomekin ariketak (otsailaren 12an), stretching globala (martxoak 5) eta hipopresiboak (api-

rilak 23). Mainondo kirol gune-ko bazkideentzat prezioa 3 euro da, eta gainerakoentzat 5 euro.

Bestalde, iraupen luzeko ikastaroen artean honako hauek daude, besteak beste: pilates, txirrinbiki, yoga, mindfulness eta helduentzako gimnasia. Kasu honetan ere bazkideentzako prezioak merkeagoak izango dira. Gutxieneko taldea sortzen ez bada ikastaroa bertan behera geratuko dela gogoratu dute.

## Enplegurako orientazio zerbitzua herritar guztien eskura dago Elorrion

Zerbitzua eguazten eta bariku goizetan ematen dute, Iturri Kultur Etxean. Aurrez ordua hartu behar da

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Zabaltzen-SARTUK, Elorrioko Udalagaz eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuagaz lankidetzan, orientazio zerbitzua ematen du Iturri Kultur Etxean. Eguazten eta bariku goizetan ematen dute zerbitzua, Iturriko bigarren solairuan, 8:00etatik 15:00etara. Zerbitzua herritar guztientzat da, baina aurrez ordua hartzea beharrezkoa da. Horretarako, 618 871 743 te-

lefono zenbakira deitu behar da. Zerbitzua langabezian dagoenari edota lanpostu hobe baten bila dabilenari dago zuzenduta; izan ere, zerbitzuaren helburua herritarrei lana bilatzen laguntzea da, hobekuntza profesionala eta pertsonala sustatuz.

Horrez gainera, zerbitzuak norberaren ibilbide pertsonalizatua diseinatzen laguntzen die herritarrei, baita hau martxan ipintzen

ere. Horretarako, diagnosia egiten da, aukerak aztertzen dira eta baliabideak ipintzen dira, besteak beste. Bestalde, lana bilatzeko teknikak ere aholkatzen dituzte. Hau da, curriculuma zelan osatu, aur-

**Zerbitzua langabezian dagoenari edota lanpostu hobe baten bila dabilentzako da**

kezpen gutun k zelan erredaktatu, lan elkarrizketak zelan prestatu eta abar.

Herritarrek Lanbideko profila eguneratzeko laguntza ere eskatu ahal izango dute, eta zerbitzuak aukera emango du enpresekin bi-tartekari lanak egiteko.

**Athletic Club**




**Vs**



**Cádiz CF**

## Athleticen eta Cádizen arteko partidarako sarrerak San Mames VIP Area-ko palkoan



Atheticek San Mamesen jokatuko dituen Ligako eta Kopako partida guztietako sarrera bikoitz bana (palkokoa) zozkatuko du ANBOTOk hemendik aurrera.

Oraindik Anbotokide ez bazara, ez galdu zozketa hauetan eta ANBOTOk egiten dituen gainerakoetan parte hartzeko aukera eta egin zaitez Anbotokide!

Zozketan parte hartzeko azken eguna: urtarrilaren 30a.

**Okm:**  
*batzen gaituen  
distantzia*

Egin zaitez Anbotokide  
eta parte hartu gure  
zozketetan!



**anboto  
kide**

## Energia garraiatzeagaitik Garaiko lurrak erabiltzen dituzten azpiegiturek zerga bat ordaindu beharko dute aurrerantzean

Zergak "kontraprestazioa" izan gura du azpiegiturek sorturiko "deserosotasunen" aurrean

**GARAI • EKAITZ HERRERA**

Ura, gasa, elektrizitatea zein hidrokarburoak. Garraiatzen den energia-hornidura edozein dela

ere, azpiegitura horien enpresa arduradunek tasa bat ordaindu beharko dute aurrerantzean. Garain behintzat bai, udalak horri

begirako ordenantza berri bat ipini du-eta indarrean. Zerga hori jabetza publikoko lurrak erabiltzen dituzten azpiegiturei aplikatuko

dieta eta instalazioen zati bakoitzak kontuan hartuko dute. Izan metalezko dorre, transformadore, ponpaketa-sistema zein elektrizitate linea. Eta berdin energia garraioa lurpetik, lurrazaletik edo lur gainetik eginda ere. Garaiko alkate Erramun Osaren berbetan, zerga berri honek "kontraprestazio moduko bat" bilatu gura du energia garraiatzeko azpiegiturek sortzen duten "deserosotasuna" arintzeko. "Azpiegitura

**Erramun Osa alkatearen berbetan, Garai da zerga hau onartu duen Durangaldeko lehenengo herria**

horiek udalerrri txikietako lurretan ipintzen dira, baina gero ez diote ezelako onurarik ekartzen udalerrri txiki horri. Beraz, horrek zelanbaiteko kontraprestazio bat ekarri behar duela uste dugu", azaldu du Osak.

Alkateak zehaztu duenez, Garai da Durangaldeko herrien artean honelako zerga bat indarrean ipintzen duen lehenengo udalerrria. Zerga indarrean sartzeko, udalak Galiziako Arteixo udalerrrian eginiko bidea kontuan hartu du.

## Mallabian asto probak antolatu dituzte martxoko lehenengo astebururako

**MALLABIA • J.D.**

Idi probak ohikoagoak dira, baina noizerik noizera asto probak ikusteko aukera ere egoten da Mallabian. Horixe da oraingo kasua. Martxoko lehenengo astebururako pisu libreko asto proba saioak antolatu dituzte. Pilotalekuaren ondoan dagoen probalekuan egingo dituzte. Lau egunez

**Izen-ematea otsailaren 11n egin ahal izango da, arratsaldean, Mallabiko udaletxean**

segidan egongo dira: martxoaren 3an, 4an, 5ean eta 6an, hain zuzen ere. Aurtengo 15. aldian izango da.

Parte hartzeko izena eman behar da aurretik. Udaletik informatu dutenez, otsailaren 11n egongo da horretarako aukera, 18:00etan, udaletxean.



Garaiko herriko erdigunea.

## Izurtzan emakumeen binakako txapelketako partiduak jokatu dituzte

Izurtzako Udalak kultur eta kirol ekitaldiak antolatuz hasi du urtea. Gaur antzerki saio bat ikusteko aukera dago; otsailaren 4rako pilota partiduak antolatu dituzte

**IZURTZA • J.D.**

Ados enpresako pilota jaialdia otsailaren 4ko zapatuan hasiko da, 18:30ean. Sarrera bost euro da eta udalak aulkiak ipiniko ditu partiduak jesarrita ikusteko. Emakumeen bikakako txapelketako partidu batean Durangaldeko ordezkari batek jokatu du: Ainhoa Ruiz de Infante. Otxandiarrak Oihana Orbegozogaz osatuko du bikotea. Biek Naroa Etxekolonea eta Maite Ruiz de Larramendi Mujika izango dituzte aurkari. Beste partiduan Irantzu Etxebestek eta Andrea Capellanek —Miguel Capellan pilotari ohiaren alaba— Andrea Aldaregia eta Ane Mendiburu izango dituzte aurkari.

Bestalde, gaur bertan, 18:00etan, Bertoko eta urrutiko ipuinak umeentzako antzezlan musikatuagaz gozatzeko aukera dago erabilera anitzeko lokalean. Ipuin musikatuaren bitartez, munduko kulturei buruz arituko dira Nerea Ariznabarreta eta Mariano Hurtado (Naita produkzioak). Sarrera doakoa izango da.



Ainhoa Ruiz de Infante eta Oihana Orbegozogaz urdinez, joan zen asteko jardunaldian, Agurainen.



Urtarril erdian egindako lehenengo saioko irudia.

## Zuhaitz landaketaren bigarren saioa Mañarian

Lehenengo saioa arrakastatsua izan zenez, otsailaren 5eko domekarako beste deialdi bat egin dute

**MAÑARIA • J.D.**

Mañariko Udalak erositako baso bat bertoko zuhaitzekin berreskuratzeko egitasmoa harrera ona izaten ari da. Urtarrilean martxan ipinitako lehenengo deialdian 80 bat lagun batu ziren eta, eguraldi txarrari aurre eginez, 700 landaretik gora landatu zituzten elkarlanean. Arrakasta horrek bigarren

saio bat antolatzera animatu ditu egitasmoko sustatzaileak. Otsailaren 5eko domekan izango da eta Urkiolako Bizkarra jatetxearen ondoko aparkalekuan batuko dira, 09:30ean.

Landaketan parte hartu gura dutenek [info@lurguia.org](mailto:info@lurguia.org) helbide elektronikoa eman beharko dute izena.



# BIZI TZEKO HEZI

KURUTZIAGA  
IKASTOLA 

**MATRIKULAZIO EPEA**  
otsailaren 13tik 24ra

**ATEAK ZABALIK  
JARDUNALDIA,**  
otsailaren 11ko  
goizean zehar

**ESKAINTZA:**  
0 urtetik 18 urtera bitarteko  
hezkuntza eskaintza

**HELBURUA:**  
Ikasle eleanitz, kritiko eta  
euskaldunak

**JANTOKIA:**  
Bertokoa, sasoikoa eta  
produktu ekologikoak



[www.kurutziagaikastola.eus](http://www.kurutziagaikastola.eus)





**anboto**  
kide

Anbotokideen  
txokoa

## URTARRILEKO ZOZKETAK



**Uxarte sagardotegian** bi  
pertonentzako jatordua.

*\*Eman izena gure webgunean.*

## IRABAZLEAK

**Lehendakari gaia antzezlan:**

Bego Zarate Arana

**Amaraun ikuskizuna:**

Araitz Basauri Gandiaga

**BBK Karpin:**


Mari Jose Romo Gallardo

Eskarne Vilar Elosu

**Okm:**

batzen gaituen  
distantzia

Egin zaituz Anbotokide  
eta parte hartu gure  
zozketetan!



## Berrizen manifestaziora deitu dute gaztetxearen kontrako erasoak salatzeke

Mobilizazioa 20:00etan irtengo da, Olakueta plazatik



Hiltegi gaztetxea azken lapurretaren ondoren.

**BERRIZ • JONE GUENETXEA**

Berrizko Hiltegi gaztetxean lau bider sartu dira lapurretan azken hileetan. Orain dela egun batzuk gertaturiko lapurretan, alkohola ostegaz gainera sukaldako txorrota zabalik utzi zuten. Ura beheko solairuan da-

goen rokodromoraino heldu zen. Gaztetxe kideek azaldu dute "nazkatuta" daudela. "Jendea batzarrerako batzea kosta egiten da, eta horrelako gauzak gertatzen direnean gehiago". Gogoratu dutenez, herriko hainbat gazte birritan harrapatu dituzte

lapurturiko alkohola gaztetxe barruan edaten. Salatu dutenez, sare sozialetan ere erasoak jasan dituzte. Arazoa konpontzeko, herritarrak mobilizaziora deitu dituzte. "Herria mobilizatu gura dugu jendeak gertatzen dabilena jakin dezan. Babes handia lortu gura dugu", esan dute. Mobilizazioaren deitzaileek diotenez, "gaztetxearen kontrako erasoak Berriz herriaren aurkako erasoak dira". Manifestazioa 20:00etan hasiko da, Olakueta plazatik. Herriko hainbat elkarte babestu dute ekimena.

**Mobilizazioaren deitzaileek diotenez, "gaztetxearen kontrako erasoak Berriz herriaren aurkako erasoak dira"**

**Beste gertakari batzuk**

Berrizko gaztetxe kideek beste gune autogestionatu batzuk ere gogora ekarri dituzte. Zaldibarko, Elorrioko, Eibarko eta Larrabatzuko gaztetxeetan gertaturiko lapurretak gogora ekarri dituzte. Era berean, Durangoko Sorginolen eraisketa eta Lau-dioko gaztetxe kideei ipinitako isuna ere gogoratu dituzte.

## Berbalagun egitasmoan izena eman daiteke Zaldibarren

**ZALDIBAR • JONE GUENETXEA**

Zaldibarko Berbalagunen as- tean behin elkartzen dira talde txikitik euskaraz aritzeko: bidelariak (euskaraz ikasten dabilzanak edo ohitura berreskuratu gura dutenak) eta bidelagunak (euskara erraz erabiltzen dutenak eta ikasten dabilzanei euskaraz praktikatzeko laguntzeko prest daudenak).

Zaldibarren, Mintzapraktikan aritzen diren hiru talde daude. Bat martitzen goizetan biltzen da, 09:30ean; beste bat eguazten arratsaldeetan, 18:15ean; eta hirugarrena eguazten arratsaldeetan, 16:15etan. Izen-emate gehiago egon ahala, talde berriak ere sortu daitezke. Urtarrilean izena emateko aukera dago oraindino: 688722989 (whatsapp) telefonoan, [zaldibarkoberbalaguna@gmail.com](mailto:zaldibarkoberbalaguna@gmail.com) helbidera idatzita, 'labur.eus/zaldibarkoberbalaguna' loturan edo udaletxean eta liburutegian dauden esku orrien bitartez.


## Zaldibarren aurkitu duten txakur bat adopzioan hartu daitekeela azaldu du udalak

Adoptatu gura dutenek Zaldibarko Udalera deitu dezakete

**ZALDIBAR • J.G.**

Zaldibarko Udalak jakinarazi duenez, txakur bat jaso dute herrian. Txakurra adopzioan emateko prest dagoela azaldu dute udal iturriek prentsa oharrean. "Urte biko emea da, mestizoa eta txikia. Ez du parasitorik eta txi-

pa ipini diote", argitu du udalak. Txakurra adoptatu gura dutenek Zaldibarko Udalera deitu dezakete (946 827 016 edo 688 653 724) edo Zaunk elkarteagaz zuzenean hartu-emanetan ipini daitezke (946 810 616 edo [info@zaunk.com](mailto:info@zaunk.com)).



Zaldibarren aurkituriko txakurra.

## Lurretako Taxi Auzuneko txartela berritzeko azken egunak

**IURRETA** • AITZIBER BASAURI

Taxi Auzuneko txartela berritu gura duten iurretarrak azken egunak dituzte horretarako, urtarrilaren 31ra bitartean. Izan ere, otsailaren 1etik aurrera, udalak emandako erabiltzaile txartel berria aurkeztu behar zaio taxilariari. Abuztuan izan ezik, beste hiletan dago mar-

**Aste barruan, 07:30etik 20:00etara ematen da zerbitzua. Zapatuan, 09:00etatik 14:00etara**

txan Taxi Auzunea, hiriguneko zerbitzuak landa-guneetara eramateko eta ibilgailuaren zentzuzko erabilera sustatzeko.

Aste barruan, 07:30etik 20:00etara ematen da zerbitzua, 688 618 690 telefono zenbakira deituta. Zapatuan, 09:00etatik 14:00etara. Bidaia euro bi dira. Iaz 164 txartel banatu ziren; hilean 220 bidaia egin ziren batez beste.



Vicente Murillo, Bixente Kapanagan dagoen lokalean.

## Lurretako jubilatuen etxeko taberna datorren astean zabalik

Bixente Kapanagako obrek lau hilabete iraun dute

**IURRETA** • JONE GUENETXEA

Lurretako jubilatuen etxeko obrak amaituta, tabernak datorren astean zabalduko ditu ateak. Vicente Murillo tabernako arduraduna da. Lau hilabeteko obren ondoren, azken prestaketetan dabil datorren astean ateak zabaltzeko. Murillok maiatzean zortzi urte egingo ditu jubilatuen etxeko tabernako arduradun. Lokalean egindako lanen

arte, udalak Goiuriko Ama nagusien elkartearen bulegoak berriitu ditu eta baita kafetegiko barra, sukaldea, jantokia, biltegia eta hainbat zerbitzutarako lokal bat ere; 273 metro koadro guztira. Irigarritasuna hobetzeko, traba arkitektonikoak kendu dituzte. Altzariak aldatu eta seinaleak ere hobetu dituzte. Udalak 160.000 euroko inbertsioa egin du.

## "Osasun beharrianen ikerketa" egin barik dagoela salatu du Elkarrekin Podemosek

Durungaldeko herritarren osasun beharrianak aztertze konpromisoa ez betetzea leporatu diote Jaurlaritzari

**DURANGALDEA** • EKAITZ HERRERA

Durungaldeko Elkarrekin Podemos koalizioko kideek agerraldia egin dute asteon, Jaurlaritzak orain urtebete Durungaldeko herritarren osasun beharrianak aztertze ikerketa egiteko harturiko konpromisoa hartu zuenetik urtebete igaro dela gogoratze. "Urtebete igaro den arren, ikerketak egin barik jarriaten du;

120.000 biztanlek berehalako erantzuna behar dute. Informazioa eskatu genuen abenduan, eta azterketari buruzko ezer ere ez dagoela esan digute. Dirudie-nez, Mankomunitateagaz berba egin dute, hortik aurrera ez dago beste ezer", azaldu du Miren Gorrotxategi bozeramaileak Landakon egindako agerraldian.



Elkarrekin Podemoseko eskualdeko ordezkariak.



**Ate irekiak urte osoan**

*Familien behar eta  
erritmoetara  
egokitzen den ikastetxea*

### **BANAKAKO BISITAK**

Eskatu zure hitzordua:  
94 681 00 50 edo  
sanjose@durangojesuitak.org  
(0 urtetik 18 urtera)

[www.durangojesuitak.org](http://www.durangojesuitak.org)



# Kafezaleak taldeak irabazi du Berbarok antolaturiko IV. Hirukoa Gala

Hirukoa Galaren laugarren edizioa jokatu zen, barikuan, Plateruenean. Guztira, 18 hirukotek parte hartu zuten

## DURANGO • J.G.

Berbaro Elkartek joan zen barikuan antolaturiko lehiaketan 18 hirukotek parte hartu zuten eta giro bikaina egon zen Plateruenean, aurkezle paregabe bik gidatuta. Barikukoa Hirukoa Gala lehiaketaren laugarren edizioa izan zen.

Kultura, musika, geografia, Durangaldea, pertsona fama-

tuak... hainbat gairi buruzko galderei erantzun behar izan zieten parte-hartzaileek, eta baita paperezko hegazkina jaurtitzeko proba berezi bat egin ere. Hiru talde heldu ziren finalera, eta Kafezaleak hirukotea izan zen punturik gehien batu zuena. Irabazleek Errigorako otzara eramane zuten etxera.



Hirukoa Galako lehiakideak.

## Politikan

Mireia Elkoroiribe  
Zenikaonandia  
EAJ



### Goazen, Durango!

Durango EAJ-PNVk prest dugu datozen udal hauteskundeetarako hautagaitza. Berriz ere, ohore handiz alkategai aurkeztuko naiz, esperientzia, gaitetasuna, kudeatzeko gaitasuna eta, batez ere, ilusioa eta Durangorekiko konpromisoa uztartzen dituen talde bikainarekin batera.

Diziplina antzeko talde honen balio nagusia Durangorekin duen konpromisoa eta eza-gutza da, baita udal-kudeaketan esperientzia ere. Guztiok dugu ibilbide egiaztatua zuzenbidean, ekonomian, hirigintzan, ingeniartzan, ingurumenean, turismoan, kirolean, hezkuntzan edo komunikazioan, besteak beste.

Horretaz gain, ibilbide luzea egin dugu kudeaketa publikoan eta pribatuan. Durango EAJ-PNVk 2030eko Durango zuzentzeko giza talderik onena aurkeztu dugu horrela. Egungo gizarte durangarraren isla garbia den hautagaitza da, udalerrria eta durangarren beharrak sakon ezagutzen baititugu, eta badakigu nola aurre egin Durangoren alde arduraz eta seriotasunez lan egiten jarraitzeko.

Hautagaitza osatzen dugun pertsona guztiok ilusioz, proiektuz eta elkarlanez ekin diogu bide berri honi, eta, batez ere, lan egiteko gogo handiz, denontzako ona den helburu bakar bat lortzeko: durangar guztien bizi-kalitatea hobetzea, konpromiso zintzoa, erantzukizuna eta hurbiltasuna oinarri hartuta, eta udalerrriaren benetako arazoei aurre eginez. Horrela, merkataritzarako, mugikortasunerako, ingurumenerako, osasun-arretarako, enplegurako edo kulturarako konponbideak abian jarritz.

## Durangaldea asteen

### Abadiño Independententek ez dira maiatzeko hauteskundeetara aurkeztuko

**ABADIÑO** | Prentsa ohar bidez jakinarazi dutenez, Abadiño Independententek ez dira 2023ko udal hauteskundeetara aurkeztuko. Gainera, 24 urteko ibilbidearen ondoren taldea desagitea erabaki dutela jakinarazi dute. Abadiño Independententek zortzi urtez egon dira oposizioan, eta 16 urtez gobernuan.



### Martitzen gauerdia bitartean Elurretako Argazki Lehiaketan botoa emateko aukera

**DURANGALDEA** | Asteon Durangaldeko elurretako argazkiak jasotzen egon gara ANBOTOn, eta orain argazki irabazlea aukeratzeko momentua heldu da. Botorik gehien jasotzen duen argazkiak irabaziko du lehiaketa. Martitzen gauerdia bitartean egongo da botoa emateko aukera, [anboto.org](http://anboto.org) atariaren bitartez, Argazkirik bozkatuenak asteburu-pasa bat irabaziko du.

## Iritzia

### 'ETXERA' IKUR BERRIA

Dispersioa bukatutzat eman dugu. Euskal preso gehienak Euskal Herriko espetxeetan daude eta falta diren gutxiak datozen hileetan hurbiltzeko aurreikuspena dago. Giller Basauriko espetxean dago, Lupi hirugarren graduarekin Durangon, Itziar, Josu, Gita, eta Gorka Palacios Zaballan daude preso, Iurdan Martutenen eta Lola Logroñon. Horrek ez du esan nahi hainbestetan aipatu dugun salbuespen politika amaitu denik.

Urte luzetan indarrean dagoen politika diskriminatzailea ez da bukatu. Horren adibide da preso gaixoen egoera: euskal presoek ez zaizkie legediaren araberrako espetxe onurak aplikatzen gaixo terminalak ez badira; duela urtebete ez ziren Gitaren oinarriko eskubideak bermatu. Zigorren metaketa dela eta, Alderdi Popularrak legedian egindako aldaketa baten eraginez, Frantziar betetako espetxe urteak ez zaizkie aintzat hartzen Espainiako estatuan oraindik betetzeko daukaten urteak kontatzeko orduan. Europako zuzenbidearen aurkakoa da kondenak horrela luzatzea. Ondorioa oso argia da: Lolak, Gitak, Gorka Palacios eta Iurdanek hamar urtetik gorako kondenak dauzkate beteta Frantziar Estatuan, eta Espainiaratu zituztenetik, zenbait zeroan jarri zitzaizkien, bizi osoko kartzela zigorra ezarri. Gradu progresioaren auzia pil-pilean dago egun. Durangon badira zenbait preso legez hirugarren graduarekin egon beharko luketenak, baina gaur egun, Lupi da eskubide hori daukan pertsona bakarra.

Dispersioa alde batera utzita, espetxe politikan hainbat arazo larri daude oraindik konpontzeko.

Hilaren 3an 'Etxera' ikur berria iragarri genuen. Bizi dugun une honi erantzuten dion ikurra, eta datozen garaietan erdigunean jarri nahi genuen mezuari erantzun dion ikurra. Orain, bazter guztietara zabaltzea dagokigu. Lantokiak, etxeak, eraikinak, plazak, frontoiak, merkatuak... ikur berriarekin jantzi behar ditugu, denon artean lortuko dugu!

Miren Erdoiza (Durango SAREren izenean)

#### Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9. - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

**PROFESIONALA BAZARA ETA DURANGALDEAN AHOLKULARITZA, ABOKATUTZA, ARKITEKTURA EDO BESTELAKO NEGOZIORIK BADUZU, JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTOKO GIDA BERRIAN.**

Informazio gehiago 946 217 902 telefono zenbakian.

**anboto**



# San Blas 2023



# San Blas

otsailak 3 Abadiño

*Oso ondo pasatu! Disfrutatatu!*



**ERLIA**  
CONTENEDORES  
[www.contenedoreserlia.com](http://www.contenedoreserlia.com)



- Geure hondakindegia dugu.
- Harrietako materialen banaketa.
- Obra-hondakinak eta industriako hondakinak kentzen ditugu.
- Industriako eta obretako hondakin inerteen kudeaketa.

Astola auzoa, 68 • 48220 ABADIÑO  
Tel.: 646 247 350 / 946 814 107 • Faxa: 946 810 204

**LASUEN**

ERAIKUNTZA · OBRA ZIBILA · ZABORTEGIAK



CONSTRUCCIONES LASUEN

Astola auzoa 68  
48220 Abadiño, Bizkaia  
Tel.: 946 81 40 36  
[clasuen@lasuen.com](mailto:clasuen@lasuen.com)



## San Blas 2023

### Urtarrilak 27, barikua

**21:00 Bertso afaria** Maialen Lujanbio eta Igor Elortzagaz, Gaztañodi elkartean.

### Otsailak 3, barikua: San Blas eguna

#### AZOKA:

**Ganadua, baserriko tresnak eta makinak, ortuariak, frutak, gaztaia, txakolina, ogia, ezta, artisautza eta landareak.**

**XXX. Abelburu erakusketa.**

**9:00 Txistularien kalejira Txanbolin taldeagaz.**

**11:00 Meza nagusia** San Trokaz elizan.

**12:00 Bertsolariak** Ferialeku plazan.

**12:00 Herri kirolak** probalekuan:

**Urrezko Aizkolariak txapelketako gizonen binakako norgehiagoka "Eusko Label Saria":**

**Hodei Ezpeleta eta Basozabal vs. Iker Vicente eta Jon Rekondo**

**Harri jasotze Txapelketa Azkarra.**

**Emakumezkoen harri jasotze erakustaldia.**

**17:00 Erromeria Lotxo taldeagaz,** Ferialeku

plazan.

**17:00 Idi probak (Kintopekoak).**

**22:00 Idi probak. San Blas Saria 2023**

### Otsailak 4, zapatua:

#### San Blas txiki eguna

**12:00 San Blas 2023 Pilota Txapelketa,**

Tornosolo trinketeen.

**21:00 Idi probak. San Blas Saria 2023**

### Otsailak 5, domeka

**12:00 The World's Strongest Man** probalekuan.

**16:00 Tor magoaren "Amarru" ikuskizuna**

Txanporta Kultur Etxean.

\*Lehen saioa. Gonbidapenak urtarrilaren

30etik eskuragarri Errota Kultur Etxean eta Udal

Mediatekan.

**18:00 Tor magoaren "Amarru" ikuskizuna**

Txanporta Kultur Etxean.

\*Bigarren saioa. Gonbidapenak urtarrilaren

30etik eskuragarri Errota Kultur Etxean eta Udal

Mediatekan (gonbidapen bi pertsonako, goitik jota).

**18:00 Idi probak. San Blas Saria 2023**

### Otsailak 6, astelehena

**21:00 Idi probak. San Blas Saria 2023**

### Otsailak 11, zapatua

**10:00 XXXIII. Burduntziko bildots txapelketa,**

Zelaietan.

**Txakolin dastatzea.**

**14:00 Bildots bazkaria** probalekuan.

### OHARRA

**Otsailaren 20tik martxoaren 4ra bitartean, San**

**Blas jaiak 2023 argazki lehiaketako erakusketa**

**Errota Kultur Etxean.**

**- ORDUTEGIA: Astegunetan: 09:00 20:00**

**• Zapatuetan: 10:00-14:00**



### ABADIÑOKO GAZTETXEKO EGITARUA

#### Otsailak 3, barikua

**10:30** Gaztetxe zabalik

**17:00 DJak: DJ Trebi (Trebiñu) + NJO (Abadiño) +**

**DJ Gorriortxu eta Laztana (Gernika eta Ibarrangelu)**

#### Otsailak 4, zapatua

**16:30** Garbiketa

**18:30** Mus/partxis txapelketa

**20:00** Kontzertuak

**Katu (Durango)**

**Maixa eta Nahia (Durango eta Beasain)**

#### Otsailak 5, domeka

**17:00** Garbiketa

**elur**  
arraindegia

**ORDUTEGIA**  
Astearte eta ostegunetan:  
9:00 - 13:00 eta 17:00 - 19:00  
Asteazken, ostiral eta larunbatetan:  
9:00 - 14:00

Elur Arraindegia  
Zelatabe, 19 Abadiño 48220 Bizkaia  
T. 94 612 39 50

**elebe**  
ileapaindegia

SOLARIUM BERTIKALA  
MASAJE LASAIGARRIA  
ILE-APAINDEGIA  
ESTETIZISTA

Iturritxo, 2 behea  
• ABADIÑO •  
Tel.: 946 550 105

**Z**

**ZAINDU HAGIN KLINIKA**  
Odontologia orokorra eta espezialitateak

Umeentzako odontologia • Ortodontzia (P.A.D.I. programa)  
Implanteak • Periodontzia • Aho-estetika • Protesiak • etab.

Mari Tere Zamalloa Juaristi  
Periodontzia espezializatua • Col.1005

Ferialeku, 1 - Abadiño  
Tel.: 94 465 73 42

**GURE AMETSA**

RADIOFREKUENTZIA  
DIODO LASERRA  
ILE-APAINDEGIA

65 urtetik gorakoentzat  
DESKONTUAK

Iturritxo, 2A behea  
**ABADIÑO**  
(ESTANKO BERRIAREN ONDOAN)  
Tel.: 697 313 436

**Talleres**  
**Serafín**  
S.Coop

Elorriagazar, 11  
MATIENA-ABADIÑO  
Tel.: 946 814 807

**MIKEL**  
HARATEGIA

Eskolakua, 2 Tel: 946 815 452  
48220 ABADIÑO

**ABARKETERUENA**

Iturritxo kalea, 6 - Txanporta plaza  
48220 ABADIÑO  
Tel.: 944 657 790

**San Blas**  
egunean gurean:  
Ogitartekoak  
Hamarretakoak  
Menuak  
Pintxoak

Giro euskalduna eta  
atsegina egun osoan!

# “Gure azken San Blas feria izango da; martxoan erretiroa hartuko dugu”

Leaniz okindegiko Maite Leanizbarrutiak eta Lorea Leanizbarrutiak behin betiko amatatuko dituzte labeak. 28 urtean egunero egon dira okin eta gozogile lanetan

**ELORRIO • EKAITZ HERRERA**

**Ogia eta euskal pastela, horietxek saltzen dituzte gehienbat, baina San Blas azoka ate-joka dagoen honetan San Blas opila egiten harrapatu ditugu Barruti baserriko lantegian. Penagaz barik gogotsu helduko diote erretiroari. Maitek erantzun dizkie galderei.**

**28 urte daramatzazue okin lanetan. Urte mordoia dira.**

Baserriko ogia betidanik egin izan dugu hemen, baina negozioa bera orain 28 urte hasi genuen, bai. Kanpoan ibili nintzen lanean. Gero langabezian geratu nintzen. Urkiola Landa Garapenerako ikastaro batzuk egin eta abentura hau martxan ipintzea erabaki genuen.

**Abadiñoako San Blas azoka datorren barikuan egingo da. Zer moduzko azoka da zuentzat?**

Oso azoka garrantzitsua da guretzat. Jendetza batzen da eta gu ingurukoak garenez, salmentaren

ikuspegitik oso azoka ona izaten da. Jendeak ezagutzen gaitu, asko urtero-urtero etortzen da gugana. **Zer eramango duzue aurtengo ferriara?**

Baserriko ogia eramango dugu. Arto-irina, euskal pastela. Euskal pastela, adibidez, oso ondo saltzen da. San Blas opilak ere eramango ditugu.

**Dimentsio handiko azoka da. Zela-koak izaten dira aurreprestaketak?**

Egun horretan azokarako baka-rrik ez, dendetarako ere egin behar izaten dugu ogia. Beraz, ia-ia gaupasa egiten dugu lanean. Azokan ondo saltzen denez gero, otsailaren 2tik 3rako ia gau osoa lanean pasatzen dugu. Ogia ez dakit, baina San Blas egunean 200 bat opil saltzera ailegatzen gara.

**Otsailaren 3rako gogotsu?**

Jakina. Jendeari etortzeko esango nioke, erosteko, gure azken azoka izango da eta.

**Zuen azken azoka izango da?**

Bai, itxi egingo dugu negozioa.



Behar asko egin dugu urte hauetan eta deskantsatzeko ordua ailegatu da. Martxo aldera hartuko dugu erretiroa.

**Eta zer moduz sentitzen zarete bide honen amaieran?**

Egia esan, oso pozik. Lan asko

egin dugu eta bezero finkoak izan ditugu. Pozik gaude, negozioa ez dugulako gainbehera batean uzten, topera dagoenean baino. Bezero askok pena dute, anekdota asko bizi izan dugu-eta hemen. Gogoan dut behin per-

tsona bat Bartzelonatik Bilbora etorri zela Gabonak pasatzera. Geurera etorri zen afaritarako ogi bila. Anekdota mordoia izan dugu. Bestalde, gure bezero guztiak eskertu gura ditugu. Orain, deskantsatzea tokatzen zaigu.

**SERRATU S.L.**  
*Ondo pasa San Blasetan!*  
**Galdaragintza eta itxierak**  
*Enpresetan mantentze-lanak*

Astola, 48 ABADIÑO · Tel.: 946 201 837  
serratu@serratu.com · www.serratu.com

**ABADIÑOKO BATZOKIA**  
*Ondo pasa San Blasetan!*

Ferialeku plaza, 3

**Kaixo Abadiño!**

**Badator San Blas! Ondo pasa jaietan!**

**EROSKI**  
zurekin

# San Blasetako nekazaritza azokak 76 ekoizle eta 160 abelburu bilduko ditu Abadiñon otsailaren 3an

Aurten ekitaldi berezi bat egongo da. Ikuskizun horretan, Martins Licis eliteko atletak parte hartuko du

## ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiñok San Blas azoka ospatuko du otsailaren 3an; aurten, gainera, ohiko formatuagaz. Udaletik jakinarazi dutenez, aurten inoiz baino postu gehiago egongo da. Guztira, 76 ekoizle izango dira Abadiñon, eta 160 abelburu. "Iazkoa proba bat izan zen, murrizketekin egin behar izan genuen azoka eta oso ondo irten zen. Aurten, oster, ohiko formatura bueltatuko gara, murrizketarik barik. Poz-pozik gaude", azaldu zuen Mikel Garaizabal alkateak, asteon azoka aurkezteko egindako prentsaurrekoan. Nora Sarasola BBKren Gizarte Ekintzako zuzendariak eurentzat ere "pozgarria" dela aitortu du. "Pozgarria da berriro hemen egotea. Euskadiko nekazaritza eta abeltzaintza azokarik garrantzitsuenetarikoa da Abadiñokoa. Dudarik barik eskualde honetako zitarik garrantzitsuenak, adierazi zuen Sarasolak.

Aurten ere, azokaren esparru nagusia Zelaietako trinketeko aparkalekuan egongo da. Bertan, nekazaritzako merkatua egongo da eta 76 ekoizle batuko dira: gazta, ez-tia, ogia eta gozogintza, baratzeako produktuak eta fruta, txerriak eta kontserbak egongo dira, besteak beste. Txanponta plazak artisautza azoka hartuko du. Bertan, 26

erakusle elkartuko dira: larruzko postuak, bitxigintza, kosmetika natura, ekoizpen artisau eta jasangarriko arropa eta abar.

Ganaduarentzat hiru karpa ipiniko dituzte. Karpa batean Abadiñoko ganaduzaleak egongo dira; beste karpa batean arraza ezberdinetako behiak, ardiak eta potto-

**"Aurten ohiko formatura bueltatuko gara, murrizketarik barik. Poz-pozik gaude"**

**Otsailaren 3an, San Blas egunean, autobus zerbitzua egongo da Traña-Matienatik Zelaietara**

kak egongo dira; eta azken karpa "ganadu libreentzat" izango da, adierazi dutenez. Horrez gainera, Gaztañodi parkeak nekazaritzako makineriaren gunea hartuko du.

"Abadiñar guztiak daude gonbidatuta San Blas azokara etortzeko, baita etorri gura duen mundu guztia ere. Eskuak zabalik hartuko zaituztegu", gaineratu du Javier Crespo alkateordeak. Bestalde,



Ezkerretik hasita, Javier Crespo, Mikel Garaizabal eta Nora Sarasola.

Traña-Matienatik Zelaietara autobusa joan-etorrian ibiliko dela jakinarazi dute. 9:00etatik 16:00ak bitartean.

## Martins Licis indar atleta

San Blas eguneko azokaz gainera, egitarau zabala antolatu dute Abadiñon. Eta aurten, gainera, erakustaldi berezi bat egongo da. Otsailaren 5ean, harri jasotzaileen erronka bat egongo da Abadiñoko probalekuan, eta bertan Martins Licis eliteko atleta

kaliforniarrak parte hartuko du. Kaliforniako kirolaria Strongman lehiaketa garrantzitsuan urrezko eta zilarrezko dominak eskuratutakoa da, baita World Strongest Man txapelketan ere. "Licis munduko titulurik garrantzitsuenak dituen kirolari da, bai indar estatikoan bai indar dinamikoan. Gainera, indarragaz erlazioatutako euskal kirolean interesa du eta gure azoka eta gure probaleku ospetsua ezagutzera gonbidatu dugu", gehitu du alkateak.

APAINGARRIA ETA INDUSTRIALA

**Pinturas Sagasta Pinturak**

- FATXADETARAKO PROIEKTU BEREZIAK
- ERA GUZTIETAKO BARNE ETA KANPOKO DEKORAZIOAK

Sagasta auzoa - Anbe Goikoa  
- 48220 Abadiño - Bizkaia  
Tel.: 629 143 944

**MOTOS TABIRA**

KONTZESIONARIO OFIZIALA  
Salmenta · Konponketa · Boutiquea

DOAKO ASEGURUA  
ITZULI DA KEEWAY  
125CC GUZTIETARAKO

Tel./Faxa: 94 681 40 68  
motostabira@outlook.es  
[www.motostabira.es](http://www.motostabira.es)

Arzubia ind., 10-B pab. - 48220 MATIENA-ABADIÑO

GISASOLA PENTSUAK

**EKO GARDEN**  
FLORES · PISEÑO · HERBE

GISASOLA PENTSUAK  
**EKO GARDEN**  
LORAK · PENTSUAK · BARATZA  
TRAÑA · MATIENA · ABADIÑO · BIZKAIA  
TELF.: 94 681 66 87  
C/ ZUBIBITARTE 14  
E-mail: gisasola.p@gmail.com

**Luzia**

hitzorduekin  
610 28 76 32

Masajeak  
Osteopatia  
Kinesiologia  
Kranio-sakral  
biodinamika

Artolazabal kalea, 6 - Abadiño

**Iatxaberri**  
Trakal okela

ETXEZ ETXEKO OKELA  
SALMENTA ASTERO

618439054 Ibon Lasuen  
620321184 Esther Ugaldea

MARKAK HAZTEN DIREN LURRA

**Abadiñotik eta Zarautzik**  
Euskal Herri osora

Abadiño Zarautz

[www.sorland.eus](http://www.sorland.eus) · [info@sorland.eus](mailto:info@sorland.eus)

**sorland**

**MURUETA BASERRIA**

Murueta, 4, ABADIÑO  
Tel.: 946 814 556 · 658 747 471

**ABADIÑO ESTANKOA**

Iturritxo, 2B behea  
48220 Abadiño  
Tel.: 946 201 385



## Nevadah

MUSIKA DURANGO :: Urtarrilak 28



### Nevadah taldeak 'Still goes on' lana aurkeztuko du Plateruenean

Hiru urte eta erdian isileko lanean aritu ondoren, bueltan da Nevadah taldea. Lan berria besapean duela bueltatu da gainera: *Still goes on*.

Berrizko Lorentzo records estudioetan grabaturiko azken diskoa zapatuan aurkeztuko dute jendaurrean, John Dealer and The Coconuts taldeagaz batera Plateruena kafe antzokian emango dute kontzertuan. Ekhi

Arrieta abeslariagaz kaleratuko duten lehenengo lana da *Still goes on*; Arrietagaz batera, Jon Agirrebeitiak (gitarra), Pello Bañosek (bateria), Anartz Ugartek (baxua) eta Liher Arteagak (gitarra) osatzen dute Nevadah. Hain identifikagarriak ziren jantzi gorriak armairuan gorde arren, zuzenekoak beti bezain basatiak izango direla aurreratu dute. Kontzertua 22:00etan hasiko da.

### Urtarrilaren 27an

#### ABADIÑO **berbaldia**

'Zer gara, euskaldunak ala vascoak?' (Hizlaria: Ibai Iztueta), 19:00etan, Isiotu elkartearen lokalean.

#### BERRIZ **antzerkia**

'Arrainak bihotzean' (Mar Mar Teatro), 17:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

#### DURANGO **bakarrizketak**

'Ba Kar (Kar) izketak' ekitaldia, 21:30ean, San Agustin kulturgunean.

#### ELORRIO **antzerkia**

'Lehendakari Gaia' (Txalo Produksioak), 20:00etan, Arriola antzokian.

#### IURRETA **ipuin kontaketa**

'Para ponerse colorada: cuentos eróticos de la tradición oral' (Virginia Imaz), 19:00etan, herri bibliotekan.

#### IURRETA **ekitaldia**

2022ko Zaldai Mendi erronkako finalisten sari banaketa, 19:00etan, Askondoko aterpean. Iurretako VI. Mendi Astearen barruan.

#### IZURTZA **antzerkia**

'Bertoko eta urrutiko ipuinak' (Naita Produksioak), 18:00etan, erabilera anitzeko lokalean. 5etik 10 urtera bitarteko umei zuzenduta.

#### ZORNOTZA **antzerkia**

'Búho' (Titzina Teatro), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

### Urtarrilaren 28an

#### BERRIZ **musika**

Eva McBel, 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean. 'I'm Glad You Happened' lana aurkeztuko du.

#### IURRETA **lasterketa**

Basatzen Iurretako V. Mendi Bizikleta Martxa, 10:00etan, Askondoko aterpean. Izen-ematea [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) atarian egin daiteke eta baturiko dirua Angelman sindromearen ikerketarako erabiliko da. Zaldai mendi taldeak antolatutako Iurretako VI. Mendi Astearen barruan.

#### IURRETA **irteera**

Gallandara irteera frontalekin, 18:00etan, Askondoko aterpean. Umeekin egiteko moduko ibilbidea izango da. Txikienek ibilbidearen erdian batzeko aukera izango dute, Lukuarrrietatik hasita. Iurretako VI. Mendi Astearen barruan.

#### ZORNOTZA **musika**

Zornotza MusikaGaz Fest! euskal musika sortzaile gazteen jaialdia, 12:30ean hasita. Sweet Rage (Elektronik), Goiatz Dutto, Ilargi, Etxekalte, Olaia Inziarte, Deñe, Mugan, Julen, Xsakara taldeek emango dute kontzertua herriko hainbat tokitan. Gazte bazkaria, 15:00etan, Amorebieta IV frontoian.

### Urtarrilaren 28ra bitartean

#### ZORNOTZA **erakusketa**

Loraldia Eskolaren erakusketa, Zelaieta zentroan.

### Urtarrilaren 29an

#### IURRETA **ipuinak**

Amaia Egíduzu ipuin kontalaria, 12:00etan, Askondo aterpean. Iurretako VI. Mendi Astearen barruan.

#### IURRETA **tailerra**

Akuarela tailerra eta erakusketa, 17:00etan, Goiuria Kultur Gunean. Tailerra Eñaut Aiartzaguena Bravo iurretarrak gidatuko du. Iurretako VI. Mendi Astearen barruan.

#### DURANGO **antzerkia**

'Búho' (Titzina Teatro konpainia), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

### Otsailaren 2an

#### ELORRIO **aurkezpena**

'Arroz urez' (Mikel Antza) liburu aurkezpena, 18:30ean, Portalekuan.

#### ZORNOTZA **musika**

Johnny Bigstone & Sweet Marta, 20:00etan, Zelaieta zentroko kontzertu gelan.

### Otsailaren 2ra bitartean

#### DURANGO **erakusketa**

'1882/1969 Ramón de Zubiaurre. Sorterriaren kolorea', Arte eta Historia Museoa.

### Otsailaren 3an

#### Iurreta **tailerra**

'Pintzelakixki' arte adierazpen tailerra, herri bibliotekan, Onditz Mendizabal Olabariak dinamizatuta. LH1etik LH3ra bitarteko ikasleentzat, 16:45etik 18:15era. Jarraian, LH4tik LH6ra arteko neska-mutilentzat. Aurretik izena eman behar da. Joxan Ormazabalaren Esker Oneko Jardunaldien barruan.

### Otsailaren 15era bitartean

#### DURANGO **lehiaketa**

Ourdaybi mendi film lehiaketa. Gehienez zazpi minutu iraungo du mendia gazte loturiko edozein gaigaz sorturiko lanak, eta [ourdaybi.mendifilm@gmail.com](mailto:ourdaybi.mendifilm@gmail.com) helbidera bidali daitezke.

## Zinema

### :: Berriz

#### KULTUR ETXEAN

• **El peor vecino del mundo**

barikua 27: 19:00

domeka 29: 19:00

### :: Durango

#### ZUGAZA ZINEMA

• **La Ballena**

barikua 27: 18:30 / 21:00

zapata 28: 18:00 / 20:30

domeka 29: 19:30

astelehena 30: 18:00 / 20:15

martitena 31: 18:00 / 20:15

eguztana 1: 19:00

• **Lobo feroz**

barikua 27: 18:30 / 21:00

zapata 28: 18:45 / 21:00

domeka 29: 18:00 / 20:15

astelehena 30: 18:00 / 20:15

martitena 31: 18:00 / 20:15

eguztana 1: 19:00

• **The Offering**

barikua 27: 18:30 / 21:00

zapata 28: 18:45 / 21:00

domeka 29: 18:00 / 20:15

astelehena 30: 18:00 / 20:15

martitena 31: 18:00 / 20:15

eguztana 1: 19:00

• **El asombroso Mauricio**

zapata 28: 16:45

domeka 29: 17:00

### :: Elorrio

#### ARRIOLA ANTZOKIA

• **Tori y Lokita**

zapata 28: 20:00

domeka 29: 20:00

astelehena 30: 20:00

• **Mundo Extraño**

domeka 29: 17:00

### :: Zornotza

#### ZORNOTZA ARETOA

• **Operación Fortune:**

**El gran engaño**

domeka 29: 20:00

astelehena 30: 20:15

• **Misión H2O**

domeka 29: 17:00



**ANTZERKIA • ARITZ MALDONADO**

Mar-Mar antzerki konpainiak bere ibilbide laburreko bigarren antzez-lana estreinatuko du gaur Berrizen, Kultur Etxean. 'Tarzan' lehenengo ikuskizunak izandako harrera "asimilatzen" dabilta oraindino, izan ere, Feten jaialdian egon ziren, eta gero MAX sarietako finalisten artean ere egon zen 'Tarzan'. Igor Iglesias teknikaria Mar-Mar konpainiako kidea da sorreratik; Aritza Rodriguez zaldibartarra da oholtza gainera igoko den protagonistetako bat, Irene Hernandogaz batera. Leire Bilbao idazleak ere parte hartu du obraren sorreran; lehenengo aldia antzerkirako idazten. Iglesia-segaz berba egin du ANBOTOK.

**Barikuan 'Arrainak bihotzean' estreinatuko duzue. Gogotsu?**

Bai, irailetik gogor entseatzeko gabilta eta irrikan gaude publikoaren aurrean aurkezteko. Berrizko Kultur Etxean egin dugu erresidentzia. Tarzan 6 urtetik gorako publikoarentzako ikuskizuna zen, baita helduentzako ere. Oraingo honetan, baina, espektroa zabaltu gura genuen, eta hiru urtetik gorakoentzako ikuskizuna prestatu dugu, izan ere, adin tarte horren kasuan hutsune bat zegoela detektatu genuen. Hori erabakita, martxan ipini ginen. **Leire Bilbaogaz lan egin duzue.** Antzezlan hau beldurrari buruz-

# “Antzokiek ikusi barik erosi dute antzez-lana, eta hori izugarria da konpainia hasiberri batentzat”

Mar-Mar antzerki konpainiak 'Arrainak bihotzean' estreinatuko du gaur, bere ibilbide laburreko bigarren ekoizpena; lehenengoagaz, 'Tarzan'-egaz, MAX sarietan eta Feten jaialdian egon ahal izan da Durangaldeko antzerki konpainia

koa izatea gura genuen, hori argi genuen. Leire Bilbao idazleari deitu genion, umeeekin darabilen hizkuntza aproposa iruditzen zitzaigun eta. Bera oso poetikoa da. Berak istorioa proposatu eta guk antzerkiera ekarri dugu. Lehenengo biderra izan da Leirerentzako antzerkia idazten, eta oso gustora aritu gara guztiok. Arrainak beldurraren modukoak direla dio berak, eta denok ditugula beldurrak, ume zein nagusi. Superbidentziarako beharrezko ditugu. Hortik tiraka, bilatzen genbiltzana kontatu dugu. Euskal Herriko kostaldean kokatu dugu istorioa, testuinguru horretan eroso sentitzen ginen eta.

**'Tarzan' lanagaz batera eta bestera ibili zarete. Pozik?**

Aurretik elkarrengaz lan egin genuen, baina, konpainia lez, lehenengo aldia zen zerbait sortzen genuena. Espektatiba handiegirik barik ekin genion; batez ere, gure lana egin gura genuen, eta jendeak ikustea. Gijongo Feten jaialdian egoteko aukeratu gintuzten lehe-



nengo, eta, gero, MAX sarietako finalisten artean egon ginen. Euskadiko Antzoki Sareakoek euren aldizkarian gomendatu zuten, eta horrek ere asko lagundu zigun; Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza bat ere jaso dugu, gure proiektua

70 lan ingururen artean aukeratua izan eta gero. Oso pozik gaude, oraindino ere guztiz asimilatu barik, azpiegitura aldetik izugarri hazi baita guztia. Arrainak bihotzeanen kasuan, adibidez, oraindino estreinatu barik dagoen arren, 35

emanaldi lotuta ditugu datozen hiru hiletarako. Antzokiek antzez-lana ikusi barik erosi dute, eta hori izugarria da konpainia hasiberri batentzat. Flipatzen ari gara. Gure ardura nagusia gauzak ondo egitea da.

**BETI GERTU!**

**ELORRIORA**

**HEMENDIK**

Begiratu aukerak gure webgunean: [www.zarateyelexpe.com](http://www.zarateyelexpe.com)  
Tel.: 946 816 673  
Bixente Kapanaga 19, beh. 48215, Iurreta



Olaia Inziarte.

## Olaia Inziarte, Julen eta Etxekalte, Zornotzako MusikaGaz Fest! jaialdian

Urtarrilaren 28an egun osoko musika maratoia egingo dute hainbat artistak goizetik hasita

### MUSIKA • EKAITZ HERRERA

Zapatuan, hilak 28, egun osoko egitarau musikalaz gozatu ahalko da Zornotzan; izan ere, 12:30ean hasita eta gauerdia pasatxora arte, ia dozena bat artistak zuzeneko emanaldiak egingo dituzte. Besteak beste, Olaia Inziartek, Julen zornotzarrek, Etxekaltek eta Xsakarak kontzertuak emango dituzte. Zornotza MusikaGaz Fest! jaialdia udalak, Gerediaga elkarteak eta Musika Bulegoak antolatu dute, musika sortzaile gazteen lana bul-tzatzeko asmoz; lehenengo edizio

hau ibilbide luze baten abiapuntua izatea gura dute antolatzaileek.

Izan taberna, areto, zein pilotaleku, artista guztiek euskara hutsezko sorkuntzak aurkeztuko dituzte zornotzarren aurrean. Emanaldiez gainera, 15:00etan gazte bazkaria egingo dute Zelaieta zentroko frontoian.

### Zornotzarrek aukeran

Luciano Martínez Zornotzako kultura zinegotziak jaialdiaren aurkezpenean iragarritakoaren arabera, datorren urteko edizioan

gazte zornotzarrek egitarauko musika emanaldiak hautatu ahalko dituzte, betiere baldintza batzuk beteta. "Bakarlariek 35 urtetik beherakoak izan beharko dute eta, taldeen kasuan, kideen %80 35 urtetik beherakoa izan beharko dute", azaldu du Martinezek. "Zorte apur batez, euren ametsa bete eta karrera musikal oparua izango dute", gehitu du Andoni Agirrebeitia alkateak. Talentu berrien profesionalizazioan ere eragin gura dute antolatzaileek.

## Lehendakariaren inbestidura saioa, Arriolan

Iker Galartza eta Zuhaitz Gurrutxaga dira antzezlaneko protagonistak; gaur izango da emanaldia, 20:00etan

### ATZERKIA • A. M.

Iker Galartza lehenakari hautatu berria inbestidura saioa prestatzen dabil, baina azken orduan arazo bat sortuko zaio, kendu ezinena tik bat. Hori konpondu guran, Zuhaitz Gurrutxaga psikiatra kontratatuko du. Hori da Txalo konpainiaren *Lehendakari* antzezlanaren abiapuntua. Bien arteko solasaldien bitartez, tika konpontzen ahaleginduko dira. Umetako oroitzapenak eta lagun arteko hartu-emanak izango di-

tuzte hizpide solasaldian, besteak beste. Antzezlanaren orain urtebete estreinatu zuten, Hondarrribian (Gipuzkoa), eta ordutik 40 bat emanaldi egin dituzte Euskal Herrian; besteak beste, Durangon, Berrizen, Zarautzen eta Azkoitian.

Obraren jatorrizko testua Ramon Madaula aktore katalanarena da, eta hura moldatu du Txalo konpainiak; gidoia Martin Agirrek euskaratu du. Antzezlanaren 20:00etan hasiko da eta sarrerak Arriolan bertan erosi daitezke.



Zuhaitz Gurrutxaga eta Iker Galartza.

## Gai librean

### Erabili Google euskaraz

Zer galdetzen duzu zuk? "Qué hora es en Nueva York" ala "Zer ordu da New York hirian?" "El tiempo Candanchú" ala "Eguraldia Kandantxu?" Izan zaitezke "Cómo ir" edo "Nola joan" klubekoa, edo akaso zu gehiago zara "Comment aller"; bestela, munduan nor izateko kosmopolita handiuste baten gisa, "How to go". Eleanitza zarelakoan aniztasunaren ele txar.

Google norbere hizkuntzan konfiguratu izan arren, hainbat erabil-tzailek salatu dute Katalunian eta Euskal Herrian bilatzaileak gaztelarazko edukiak erakusten dituela katalanaren eta euskararen aurretik. Twitter sarean herritar andanak kargu hartu dio @Google kontuari, eta erantzun dute saiatuko direla konpontzen, baina denbora beharko dutela. Bitartean,



Libe Mimenza Castillo  
Kazetaria

### Izan zaitezke "Cómo ir" edo "Nola joan" klubekoa, edo akaso zu gehiago zara "Comment aller"

### Bitartean, Euskarazko Wikipedian egunero ia 93.000 ikustaldi izatetik 70.000ra pasa gara

Euskarazko Wikipedian egunero ia 93.000 ikustaldi izatetik 70.000ra pasa gara.

Science aldizkarian argitaratu duten ikerketa batean diotenez, lehen 250 izar ikusten genituen lekuan

orain 100 ikusten ditugu, eta XXI. mende amaieran bospasei baino ez dira begi-bistan agertuko. Argiaren kutsadura handitu ahala izarririk ikusiko ez duten belaunaldiak datoz. Ez dezagun euskararekin poluzio bide bera onartu.

Zer egin? Ikasi buruz eta praktikatuz egunero bost urratseko eskuliburu honen azken bi puntuak: 1-Konfiguratu euskaraz zure telefonoa/ordenagailua (eta gainontzeko gailu digitalak). 2-Konfiguratu euskaraz ohikoan erabiltzen duzun nabigatzailea. 3-Hautatu euskara zeure hizkuntza gisa bilaketa hobespenetan. 4-Erabili: galdetu euskaraz. 5-Pantailan agertzen zaizkizun emaitzetatik hautatu euskaraz dagoena.

Bonus track: egin protesta! Bizigaiaren amatatze aro honetarako armatzeko tenorea da.



**Hodei Gallastegi Fernandez**

Dakar rallyko fisioterapeuta

ELORRIO | 1995

## “Dakar rallyko gogorrena eguraldia egin zait, eta egunean 20 orduz oinak bustita izatea”

Hodei Gallastegi elorriarra Xraid Experience taldeko fisioterapeuta izan da Dakar rallyan; pozik, baina nekatuta bueltatu da

**RALLYA** • JOSEBA DERTEANO

**Nork pentsatuko zuen Dakar rallyko eremu mortuetan eurijasak egingo zituela aurten. Bada, egin zituen eta Hodei Gallastegik ez ditu berehalakoan ahaztuko egun haiek. Hala ere, esperientzia aberasgarria izan dela eta errepikatuko lukeela dio.**

**Zelako esperientzia izan da?**

Oso gogorra. 30 urtean han ez du ia euririk egin eta aurten sei egunetan egundokoak bota ditu. Gainera, altituderik garaienetan egin zuen euririk gehien, 1.400 bat metrotara. Gero, hurrengo kanpamentuan, Riad-en, uholdeak egon ziren.

**Prestatuta zeunden egoera horretarako?**

Ez ba! Aurretik jakin izan banu beste arropa mota bat ere eramango nuen, baina ezustean harrapatu gintuen.

**Hori izan da esperientziako momenturik gogorrena?**

Rallyko gogorrena eguraldia egin zait, eta egunean 20 orduz oinak bustita izatea.

**Osasunean eragin dizu?**

Hasieran, haranzko hegazkinean, katarroa harrapatu nuen aire girotuagaz. Gero, Dakarreko lehenengo sei egunak oso euritsuak izan ziren. Bada, imajinatu zelan nengoen:

orain ibuprofenoa, gero paracetamola, bitaminak... Katarroa gaineratik kendu ezinda ibili naiz eta Euskal Herrira bueltatu eta... hemen ere hotza.

**Kontaidazu zelakoa zen zure ohiko egun bat, goizetik gauera.**

Pilotuekin altxatzen ginen: 03:00 edo 04:00 aldera. Euren materiala eta geurea prestatu, behar zuenari tratamendua eman, dena batu eta 07:00 inguruan hurrengo kanpamentura joaten ginen, 500 bat kilometrorra. Ondoren, berriro dena muntatzera. Pilotuak heltzen zirenean tratamenduekin hasten nintzen, 20:00-21:00 ingurura arte.

**Momenturen batean pentsatu zuen: "Zer egiten dut nik hemen"?**

Bai, Errege Egunean, gure taldeko Sara Gómez pilotuak Dakarra abandonatu zuenean. Gainera, uholdeen eguna izan zen, orkatilarainoko ura geneukan eta hurrengo eguna nire urteguna zen. Orduan pentsatu nuen: "Zer arraiotan nabil ni hemen?". Dakarrak fisikoki ez ezik mentalki ere ondo prestatuta egotea eskatzen du.

**Zeintzuk ziren pilotuek gehien behar zituzten tratamenduak?**

Besaurrean, sorbaldan, zerbikalean... baina gehienbat hankekako barrualdeko abduktoretan, motoari etengabe eutsi behar zaiolako. Eta atzamarrak. Hainbeste orduan

heldulekuari eusten, atzamarrak gogortuta eta luzatu ezinda etortzen ziren.

**Denbora asko eman duzu pilotuekin. Eurekin psikologo lana egitea ere egokitu zaizu?**

Bai, gehienbat Diego Llanosegaz. Lehenengo egunean, Dakarra hasi aurretik, jausi egin zen: ubelduak belaunean eta saihestetan, zuntz haustura iskiotibialean... Antolatzailerek galdetu ziguten ea azterketa mediku sakonagorik behar zuen. Momentu kritikoa zen. Radiogra-

fiak bistaratzen zuenaren arabera, lasterketatik kanpora utzi zezaketen. Mina zuen, baina azterketari uko egin genion. Geuk egin genion aurre egoerari, tratamenduagaz hasi ginen eta Dakarra amaitzea lortu zuen.

**Zelan eraman dituzu loa eta deskantsua?**

Lehenengo egunetan karpa baten barruan lo egiten genuen. Baina euriak hasi zirenean, furgoneta baten aurreko eserleketan lo egiten nuen. Gero, furgoneta beste

zeregin batzuetarako behar zenez, *motorhome*-ko bankuetan egiten nuen lo.

**Stéphane Peterhansel, Nasser Al-Attiyah, Sebastien Loeb eta Carlos Sainz. Autoetako lau handiak. Ikusten zenituen? Azpiegitura handia zerabilten?**

Trailer eraisgarri bat zeukaten, luzatu egiten den horietarikoa. Imajinatu zelako baliabideak zituzten. Euren *padlock* propioa zuten eta han egiten zuten bizimodua. Ez nituen ikusi. Euren gune vip-ean egoten ziren eta nik ez nuen hara sarbiderik.

**Berriro Dakar Rallyan aritzeko aukera izango bazenu, baietz esango zenuke?**

Orain, hotzean pentsatuta, baietz esango nuke. Dakarrean bizi den adeitasuna goraiatzeko modukoa da. Gainera, oso esperientzia aberasgarria izan da eta giroa asko gustatu zait. Gaindiezinak iruditzen zitzaizkidan egoerak gainditu

**Dakarrean bizi den adeitasuna goraiatzekoa da. Gainera, gaindiezinak iruditzen zitzaizkidan egoerak gainditu ditut eta pertsonalki hazteko balio izan dit**

ditut eta pertsonalki hazteko balio izan dit.

**Gorputzak zenbat denbora behar du horrelako ahalegin batetik erreku-peratzeko?**

Oraindino ezin dizut erantzun, guttiz erreku-peratu barik nago eta (barrez). Hori bai, urteak dira ez nuela hain ondo lo egiten. Ohera sartu eta lo siku.

**Argalduko zinen kilo batzuk...**

Ez ba, kilo bi hartu. Jangelako janariak kumino espezia zeukan eta azkenerako nekatu egiten zaitu. Hori saihesteko, buffeteko beste gauza batzuk jaten hasten zara, pasta edo gauza gozoak, eta azkenean...



Hodei Gallastegi Sandra Gómez moto pilotuagaz.

# Amorebietak garaipen handiagaz hasi du bigarren itzulia eta goialdean dago

Numantzian azken minutuan lortutako garaipenak hauspotuta egingo diote aurre partiduari



Amorebietako jokalariek gol bat ospatzen. AMOREBIETA SD

## FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Amorebietak meritu handiko garaipen batez ekin dio Lehenengo Federazio mailako bigarren itzuliari. Aurkaria ez zen edonor, sasoi bateko izena berreskuratu gura dabilen Numantzia baino, baina Haritz Mujikaren gizonak ez ziren kokildu eta nortasun handiagaz jokatu zuten Los Pajaritos zelaian. 25. minuturako 0-3 irabazten zihoazen eta bigarren zatian sufritzea egokitu bazitzaien ere (2-3) hiru puntuak zorroan sartuta bueltatu ziren etxera.

Domekan, 18:00etan, Real Union taldea hartuko dute Urri-txen. Irundarrak ez daude euren unerik onenean eta gura baino

### Zornotzarrak zazpigarren daude eta hiru puntura dute laugarren sailkatua

urrunago dituzte goiko postuak. Zornotzarrak, oster, zazpigarren daude eta hiru puntura dute laugarren sailkatua.

Amorebietak jokalarik bat baino gehiago ekarri du neguko mer-

katuan taldea indartze aldera eta eurretari bat eskualdekoa da: Ewan Roy Urain, 22 urteko durangarra. Athleticetik dator, utzita, printzipioz denboraldia amaitu arte. Etorri zenetik hona, Amorebietak hiru partidu jokatu ditu; lehenengoan ez zuen jokatu, baina beste bietan bai. Real B-ren kontra azken 25 minutuetan jokatu zuen, eta Numantzian azken 35 minutuetan.

Bestalde, Julen Jon Guerrerok Numantzian debutatu zuen. Partiduko azken 10 minutuetan jokatu zuen.

# Elkarte berria zesta-punta eskolari bultzada emateko

Gazteen artean zesta-punta sustatzea da aste honetan aurkeztu duten Durango Jai Alai elkartearen helburua

## ZESTA-PUNTA • JONE GUENETXEA

Durango frontoiaren berrikuntzagaz batera, elkarte berri bat sortu dute herrian: Durango Jai Alai. Elkarte berriak Durango zesta-puntaren kudeaketan azken 30 urteetan ibili direnen ekarpena jaso du eta kide berriekin bultzada sendoa eman gura diote harrobiari. "Kolektiboaren lehenengo helburua eskola berri bat bultzatzea da, hainbat elementu berritzaile dituen, eta inguruko eskolentzat eredu bihurtu gura du", azaldu dute elkarte ordezkariek.

Elkarteak ate irekien jardunaldiak prestatuko ditu hurrengo asteetan, pilotalekua bisitatu eta eskolaren funtzionamendua ezagutu gura dutenentzat. Honez gainera, zabalik dauka bazkide

berriak hartzeko aukera. Informazioa jasotzeko: [durango.jaialai@gmail.com](mailto:durango.jaialai@gmail.com) emailera idatzi daiteke edo telefonoz deitu 666 176 286/650 482 198 zenbakietara.

## Frontoiaren konponketa

Asteburu honetan Ezkurdiko frontoi berrituaren inaugurazioa egingo dute. Barikuko zesta-puntako profesionalen partidurako sarrerak agortuta daude dagoeneko. "Ezbairik barik, Ezkurdiko Jai Alai enblematikoaren birmoldaketa erabakigarria izan da sorturiko proiektu honi azken bultzada emateko, eta eskolaren jardura sustatuko du. Beraz, ez da kasualitatea Eskolaren aurkezpen data inaugurazioagaz batera aukeratu izana", adierazi dute elkarte ordezkariek.



Zesta-puntako elkarte berriko kideak.

## Jokaldia

### Etxera Trail

Aurten ere 2023ko denboraldia urtero lez estreinatuko dugu, Gernikan, Etxera Trail lasterketa korrituz. Iaz eta 2021ean ezin izan zen lasterketa egin, eta, beraz, ez ginen bertan egon, baina bueno, urte bi horiek hutsean geratu direnez "urtero" hitza jartzea zilegi ikusten dut.

Etxera Trail ez da ohiko lasterketa bat, aldarrak bat da batez ere, Euskal presoen aldeko aldarria. Eta lasterketa izateaz gain martxa ere bada.

Kirola eta aldarrikapena uztartu nahian antolatu zen lehenengo Etxera Trail. Helburua, ahalik eta herritarrik gehien Euskal preso, iheslari eta errefuxiatu politikoen auzian inplikatzeko da, konprometitzea eta aktibo bilakatzea. Horregaitik, herritarren parte hartzea eta inplikazioa handia izan dadin eta



Oihana Azkorbebeitia Urizar  
Mendi lasterketak

### 2023ko Etxera Trail berritasunekin dator, aurten 'banderola' eraldatu bat estreinatuko da bertan

### Gauza asko egiteke dauden arren, irudi aldaketak gauzak bide onetik doazen sentipena ematen digu

inor kanpoan geratu ez dadin, adin gutzientzako moduko ibilbideak antolatzen dira bertan. 16 km-ko lasterketa, 16 km-ko martxa eta 6 km-ko martxa txikia.

Aurtengoa, gainera, ekitaldi berezia izango da, urte biko 'eten' baten ostean berriro egingo baita lasterketa normaltasunez. Gainera, 2023ko Etxe-

ra Trail berritasunekin dator, aurten 'banderola' eraldatu bat estreinatuko da bertan. Euskal presoen sakabanaketa bukatzeaz dagoen honetan, betiko banderola zaharkitua geratu da eta beharrezkoa zen berri bat sortzea. Irudi berriak ez du Euskal Herriko maparik izango, geziak bakarrik, eta "etxera" hitza soilik eramango du. Euskal preso eta iheslarien gaian oraindik gauza asko eta asko egiteke dauden arren, betiko banderolaren irudi aldaketa honek gauzak bide onetik doazen sentipena ematen digu. Ni neu oso pozik sartuko naiz Gernikako helmugan banderola berria eskuetan dudala. Ia etorkizunean ez dugun banderolarik ikusten gure herriko balkoietan!

Beraz, domeka honetarako oraindik planik ez baduzue badakizue nora joan! Gernikan ikusiko dugu elkar!

**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

**ISD** Inmobiliaria del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)  
inmoduranguesado@gmail.com

**Fernando Uribe**  
AGENCIA INMOBILIARIA  
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO  
Tel.: 946 816 423 • [www.fernandouribe.es](http://www.fernandouribe.es)

## // AUKERA

**IURRETA:** Santa Maña: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 15 m<sup>2</sup>-ko trastelekua. Aparkaleku pribatua. **C.E.E=F 130.000 €**

**AUKERA:** 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Garaje itxia. **C.E.E=E 116.000 €**

**DURANGO:** Apartamentua. Erdi berria. Logela, komuna eta egongela. **C.E.E=F. 142.500 €.**

**ZALDIBAR:** 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela handia. terraa. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du. garajea. **C.E.E.=F. 157.000 €**

**MATIENA:** 2 logela, komuna, sukaldea handia. Igogailua. **C.E.E=F.129.000**

## // ETXEBIZITZAK SALGAI

**SAN FRANTZISKO:** 3 logela, komuna, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Ikuspegi ederrak. Eguzkitsua. Garaje itxia. **C.E.E=E 195.000 €.**

**UNDATORRE:** 2 etxebizitza bat eginda. 4 logela, 2 komun, sukaldea, jangela eta egongela. Trastelekua. **C.E.E=G 185.000 €.**

**ASKATASUN ETORBIDEA:** 4 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. **C.E.E=E 290.000 €.**

**LEMOA:** 3 logela, komuna, sukaldea, despentsa eta egongela. 2 terraza. Ganbara. **C.E.E=G 149.000 €.**

**DURANGO:** 2 logela eta komuna. Berriztatua. Ganbara. **C.E.E=G 130.000 €.**

**ABADIÑO:** 150 m<sup>2</sup>-ko terraza. Erdi berria. Trastelekua eta garajea. **C.E.E=E 309.000 €.**

**MARTXOAREN 8'KO:** Erdi berria. 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Balkoia. Garaje itxia. **C.E.E.= E. 318.000€**

**ANBOTO:** 3 logela, komuna eta egongela. Eguzkitsua. **C.E.E=E. 190.000 €**

**KOMENTUKALEA:** 4 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Ganbara. Garajea. **C.E.E=E 239.500 €**

**ASK. ETORBIDEA.** 119 m<sup>2</sup>. 3 logela, 2 komun eta egongela. Ganbara eta garaje bikoitza. **C.E.E= E. 312.000 €**

**KALEBARRIA:** 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. **C.E.E= F. 140.000€**

**SAIBIGAIN:** Apartamentua./ Bulegoa. **C.E.E=F. 184.000 €**

**TRONPERRI:** 117m<sup>2</sup>. Erdialdean. 4 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Ganbara eta garajea. Solariuma eta txoko komunitarioa. **C.E.E.=F. 270.000 €**

**EZKURDI:** 4 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handia. garajea aukeran. **C.E.E=E. 240.000 €**

**ASK. ETORBIDEA:** 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handia. Terraza. Garajea aukeran. **C.E.E= E. 275.000 €**

**JUAN OLAZARAN.** Erdi berria. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Eskegitokia. Garajea eta trasatelekua. **C.E.E= B. Jantzia.**

## // ETXEBIZITZAK SALGAI

**DURANGO:** Herriko Gudarien kalea. 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, despentsa eta 2 komun. Garajea. Trastelekua. Ganbara.

**DURANGO:** Astepe auzunean. 3 logela, egongela, sukaldea, eskegitokia eta 2 komun. Garajea eta trastelekua. Argitsua. Pisu altua.

**DURANGO:** Antso Eztegi. Izugarritzko adosatua salgai. 3 logela eta 4 komun. Lorategia. Terraza. Txokoa. Ezin hobea.

## ABADIÑO

**ABADIÑO:** Iturritxo kalea. 3 logela, 2 komun, egongela-jangela, sukaldea eta despentsa. Ganbara. 2 garaje eta 2 trasteleku.

## BERRIZ

**BERRIZ:** 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta trastelekua.

**BERRIZ:** 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

**ATXONDO:** 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

## //LURSAILAK SALGAI

**IURRETA:** 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

## //BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

**IURRETA:** Orozketa auzoa. Baseri erdia salgai. Ikuspegi zoragarria. 3.000 m<sup>2</sup>-ko lursailarekin. Durangotik oso gertu.

**BERRIZ:** Andikona auzoa. Baseri ikusgarria, berriztatuko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

**BERRIZ:** Eitua auzoan. Baseri ederra. Berriztatuko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

**ATXONDO:** AXPE. Baseri ederra salgai. Berriztatuko. Kokapen izugarria

**ATXONDO:** ARRAZOLA. Izugarritzko baserria salgai. 40.000 m<sup>2</sup>-ko lur saila. Berriztatuko.

**MAÑARIA:** 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m<sup>2</sup> solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

**MENDATA:** Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatuko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

**DURANGO:** Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatuko.

## //BULEGOAK ALOKAIKUAN

### ABADIÑO

30 m<sup>2</sup>-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

## //GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

## //LOKALAK ALOKAIKUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

## www.inmoduranguesado.com

**DURANGO** 62 m<sup>2</sup>  
2 logela

**MUSIKO ALTUNA:** 62 m<sup>2</sup> (eraikita). Egongela, sukaldea, 2 logela, eta komuna. Balkoia. Etxe erdiak kanpora ematen du (hegoaldea). Leku onean kokatua, zonalde berdeak eta zerbitzuguneak gertu. 2.002. urtean berriztatua.

**145.000 € C.E.E: F**

**DURANGO** 98 m<sup>2</sup>  
3 logela

**UNTZILLATX:** (1.997. urtean eraikia). Egongela, sukaldea, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Etxe erdiak kanpora ematen du (ekialdea). Leku onean kokatua, zonalde berdeak eta zerbitzuguneak gertu. 6 m<sup>2</sup>-ko ganbara. Egoera onean dago baina berriztatzea behar ditu.

**250.000 € Bidean**

**DURANGO** 94,69 m<sup>2</sup>  
4 logela

**KURUTZIAGA:** Egongela, sukalde jantzia, komuna, despentsa eta galeria. Balkoia. Etxe erdiak kanpora ematen du (hegoaldea). Leku onean kokatua, zonalde berdeak eta zerbitzuguneak gertu. Ganbara. Egoera onean dago baina berriztatzea behar ditu.

**260.000 € C.E.E:E**

**MATIENA** 89 m<sup>2</sup>  
3 logela

**TRANABAREN:** (1.987. urtean eraikia) Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia eta 38m<sup>2</sup>-ko terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. (hego-mendebaldea): Argitsua. Leku onean kokatua. 12 m<sup>2</sup>-ko trastelekua. Egoera onean dago baina berriztatzea behar ditu.

**229.000 € C.E.E: F**

**MUNTSARATS** 70,4 m<sup>2</sup>  
2 logela

**ARLOZABAL:** 2004.urtean eraikia. Galeria, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea) Argitsua. Leku onean kokatua. (Zonalde berdeak.) 7.50 m<sup>2</sup>-ko trastelekua eta 14,29 m<sup>2</sup>-ko garajea. EZIN HOBEA.

**189.000 € C.E.E: E**

**MATIENA**

**ERAIKUNTZA BERRIA:** 91,05 m<sup>2</sup>-tik aurrera. 3 eta 4 logela. Kalitate oneko materialak. Garajea eta trastelekua barne. Estreinatuko.

**254.900 €-tik aurrera**

## //DURANGO

**ANTSO ESTEGIZ:** 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua eta igogailua. **192.000€/ E.E.Z= F**

**ASKATASUN ETORBIDEA:** 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 €/ E.E.Z=E**

**ASKATASUN ETORBIDEA:** 3 logela, sukaldea eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

**JOSEMIEL BARANDIARAN:** Logela, egongela, sukaldea balkoiarekin eta komuna. igogailua. garajea eta trastelekua. **300.000€ / E.E.Z=D**

**BARRENKALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **145.000 € / E.E.Z=G**

**BARRENKALEA:** Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

**JUAN DE OLAZARAN:** 3 egongela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000€ / E.E.Z=B**

**KOMENTU KALEA:** 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Ganbara. Garaje itxia aukeran. **LEHEN 230.000 € ORAIN 190.000 € / E.E.Z=E**

**SAN FRANTZISKO:** 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

**SANTIKURUTZ KALEA:** Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m<sup>2</sup>-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

**TRENBIDE KALEA:** 5 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **LEHEN 175.000€ ORAIN 150.000€ / E.E.Z=F**

## //ABADIÑO

**MUNTSARATZ AUZO:** Baserria. 2.750 m<sup>2</sup>-ko lur sailarekin. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara eta balkoia. **390.000 € / E.E.Z=D**

## //BERRIZ

**BERRIZBEITIA:** 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta komuna. Balkoia. **100.000 € / E.E.Z=G**

**MURGOITIO AUZO:** Berreraikitzeke baserria lurzoruagaz. **290.000 €**

**PADURE:** 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. **LEHEN 125.000€ ORAIN 99.300 € / E.E.Z=F**

## //GARAI

**MOMOITIO AUZO:** Etxebizitza eraikitzeke lursailak. Aukera ezberdinak.

## //IURRETA

**DANTZARI KALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **153.000 € / E.E.Z=E**

## //IZURTZA

**ELIZALDE AUZO:** 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

## //OTXANDIO

### OTXANDIO

**ZELAIETA AUZO:** Baserria. 40.355 m<sup>2</sup>-ko lursaila. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000€ /ORAIN 280.000€ E.E.Z=BIDEAN.**

## //GARAJEAK SALGAI

Durango eta Iurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuarekin.

## //BERRIAK

### ALOKAGAI

Etxebizitzak, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.

## Botikak

**BARIKUA, 27** · 09:00-09:00

ETXEBARRIA,  
MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

**ZAPATUA, 28** · 09:00-09:00

BAZAN,  
URIBARRI 5 - DURANGO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-13:30

ETXEBARRIA,  
MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

DE DIEGO,  
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

CAMPILLO,  
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

SARRIA,  
SASIKOA 17 - DURANGO

BALENCIAGA,  
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

NAVARRO,  
ARTEKALEA 6 - DURANGO

GAZTELUMENDI,  
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

MELERO,  
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

RUIZ,  
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

GUTIERREZ,  
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

GOIRIA,  
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN,  
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**DOMEKA, 29** · 09:00-09:00

DE DIEGO,  
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**ASTELEHENA, 30** · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL,  
ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**MARTITZENA, 31** · 09:00-09:00

MUGICA,  
ANDRA MARIA 9 - DURANGO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**EGUAZTENA, 1** 09:00-09:00

BALENCIAGA,  
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**EGUENA, 2** · 09:00-09:00

CAMPILLO,  
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

MELERO,  
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

## Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



**GOZATU GOZOTEGIA**

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11. DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
661 40 14 00  
gozaturango@gmail.com  
Gozatu Gozotegia  
gozatugozotegia



**Elene Loroño Bizkarrak** urtarrilaren 27an 13 urte egiten ditu. Beti bezain zintzo jarraitu. Musu handi bat izugarri maite zaituen familiaren partez.



Zorionak lehengusu pare honi! Urtiek beteko dabez egunotan ta zifra bire allegau die honezkeru... Txokolatie noz preparauko zain gauz familixakuok, eh? Mosu potolo bana!



Zorionak, **Maldon!** Ondo ospatu zapatuan. Astelehenean prestatuko diguzun tortillagaz ospatuko dugu urteguna.



Zorionak, **Uxue!** 8 urte dagoeneko! Oso ondo pasatu zure egunean. Muxu handi bat etxekoen partez!

## Eguraldia

ZAPATUA ↓ 2° / 4° ☁

ASTELEHENA ↓ 1° / 7° ☁

EGUAZTENA ↓ 4° / 9° ☁

DOMEKA ↓ 1° / 4° ☁

MARTITZENA ↓ 3° / 9° ☁

EGUENA ↓ 3° / 9° ☁

Bulegorako zigiluak  
Fotolitoak



**Betikoak**  
flexografia

946 202 241  
Bixente Kapanaga, 9  
48215 IURRETA



**Arrike**  
Liburudonda




Kalebarria z/g - Durango  
Tel.: 946 201 893  
Faxa: 946 816 403


**OTSAILAK 3**  
"Pintzelakixki" arte adierazpen tailerra

Dinamizatzailea: ONDITZ MENDIZABAL  
OLABARRIA  
16:45-18:15  
18:15-19:45 LH4-LH6ko ikasleentzat

Aldez aurretik izena eman behar da



Ekintzetan izena emateko: 94 681 27 26  
bibliotekakoekintzak@iurreta.eus  
WhatsApp: 688 86 37 36



# "Tokiko kalitatezko produktuekin prestatzen ditugu gosariak"

Petit Goxo izenpean, gosari pertsonalizatuak egiten ditu Iraide de Paulak. Durangarraren berbetan, ondo gosaltzea modurik onena da egunari ondo ekiteko

sortu zitzaion. 2021ean ekin zioten senarrak eta biak proiektuari eta izan duen harreragaz ezin sinetsita daude. Astelehenetik domekara banatzen dituzte gosariak. Bizkai, Gipuzkoa eta Arabatik kanpora bidaltzeko garraio enpresa batez lan egiten dute.

**Gosari pertsonalizatuak egiten dituzue, opari modura emateko. Zergaitik gosariak?**

Pozarren ibiltzen naiz beti, eta besteei poz hori transmititzea gustatzen zait. Gosariak horretarako bitarteko izan zitezkeela ikusi nuen. Izugarri gustatzen zait gosaltzea, egunero hiru bider gosaldu nezake nik.

**Gosaria edo brunch-a baino gehiago, esperientzia edo emozio bat eskaintzea da helburua. Lan ederra da, atsegingarria**

**Bakoitzaren eskarietara moldatzen zarete.**

Bai. Gosaria edo *brunch*-a baino gehiago, esperientzia edo emozio bat eskaintzea da helburua. Zauden tokian zaudela (lantokian, etxean, erietxean...) atea zabaldu eta ezustean aurrez aurre gosaria dakarren norbaitezag topatzea oso polita da. Lan ederra da, atsegingarria. Poz handia ematen du, sorpresaren parte egiten gaituztelako, momentu berezi horren parte. Gosariagaz txarteltxo bat eta bezeroari eskaturiko argazki bat bidaltzen ditugu. Bat baino gehiago emozionatu egin dira eta guri ere eragin digute negarra. Gaixo daudenei edo momentu gogorra bizi dutenei ere egin diegu entrega. **Baduzu enkargu berezirik gogoan?**

Momentu berezi asko daude, oso momentu politak. Behin, gosari berezi bat eskatu ziguten ezkontza-eske bat egiteko, hogeitaka arrosa gorrigaz eramateko. Beste behin, emaztearen urteguna ospatzeko, afari berezi bat prestatu nuen bere etxean, senarragaz ados

jarrita. Kanean zain egon nintzen, bezeroa emazteagaz eta alabeekin irten arte. Orduan, etxera igo eta dena prestatu nuen. Etxeko harrera puxikaz bete nuen, ohar-txoekin. Afaria prest utzi nuen jangelan.

**Gosariak eta bestelakoak prestatzen dituzu, beraz.**

Bai, ez diot mugarik ipintzen neure buruari. *Coffe break*-ak eta askotariko ekitaldiak ere eskatu dizkigute. Gainera, bazkide batez Sauvage Wedding sortu dut.

**Km0 kontzeptua duzu oinarri.**

Bai, tokiko kalitatezko produktuekin prestatzen ditugu gosariak, eta, horretarako, Durangaldeko ekoizleekin lan egiten dugu. Horregaitik izan dugu halako erantzun ona. Hasieratik ahorrak ahokoari eskerrak zabaldu da gure lana eta oso eskertuta nago emandako konfiantzagaitik.

**Houstonetik (AEB) izan genuen enkargu bat, adibidez, hemen bizi den senide bati sorpresa emateko**

**Gosaria da eguneko jatordurik garrantzitsuen?**

Ondo gosaltzea modurik onena da egunari ondo ekiteko.

**Urrunetik egin dizute enkargurik?**

Bai. Houstonetik (AEB), adibidez; hemen bizi den senide bati sorpresa emateko. Eta Txiletik ere bai, Orbeara (Mallabia) eramateko. Kantabriara, Extremadurara edo Kordobara ere bidali ditugu. Eta Madrilera tokiko produktuekin osaturiko otzara asko bidali dugu. Avilara *carrot cake* bat bidali genuen; beldur nintzen baina ondo ailegatu zen. Getxoko folk eta jazz jaialdietan ere lan egin dugu. Anita Parker eta Doctor Deseoren kontzerturako cateringa egin genuen. Ondoren, ahorrak ahokoari eskerrak hainbat artistagaz lan egin dugu: Amaia Romerogaz, Alvaro Solerregaz eta Rigoberta Bandinigaz.

## Politikan

Mertxe Mugika  
Balanzategi  
AEK



## Zubiak

2022ko abendua gogoan gordeko dugu euskaldunok: pandemia osteko Durangoko Azoka, Euskal Herriko Bertso Txapelketa Nagusia Iruñean, eta Hertzainaken kontzertuak BECen. Hiru ekimen hauetan euskara izan da ardatza; nekez uler daitezke euskara jakin barik, euskara sentitu barik. Ideia hori izan dut bueltaka sarritan buruan: zenbat aukera eta ekimen galdu dezakeen euskara ez dakien batek. Baina, kontua da ea euskaratik kanpo bizi den batek noraino dakien horrelako ekimenez edo ohartzen den ere.

Euskararen Behatokiak abenduan emandako hizkuntza urraketan barruan argitaratu du Nafarroako Bertsolari Txapelketan, Nafarroa Arenan, taberna eta segurtasun zerbitzuetan ezin zela euskarazko arretarik jaso. Paradojiko da 13.000 herritar euskara hutsez burututako ikuskizun batera joatea, eta aretoko zerbitzuak erdaraz baino ezin jaso izana!

Seguru nago, hala ere, paradoxa horri esker batek baino gehiagok sentitu zuela euskarara hurbiltzeko beharra. Esango nuke, sarritan, ez garela ohartzen bi mundu desberdinetan bizi garela, eta elkarren berri izateko zubiak eraikitzea beharrezkoa dela.

Zubi horien eraikuntzan kulturak paper garrantzitsua jokatzen du, baina iruditzen zait ez direla behar bezala aprobetxatzen aukera guztiak. Esaterako, hor dago ETB, bere sorreran euskara biziberritzeko apustu irmoa egin zuena. Egun, tamalez, egiten duen ekarpena, salbuespenak salbuespen, ez da txalotzekoa: baliabide gehienak gaztelaniazko katera bideratzen ditu, berrikuntzak gaztelaniazko katean probatu... Horrela jokatuz gero, nekez hurbilduko da euskararen mundura bertatik urruti bizi den bat; are gehiago, euskarazko telebistara, adibidez, arrimatu ere ez da egingo.



Iraide De Paula  
Zuñiga

'Petit Goxo'

DURANGO | 1989

**DURANGO • AITZIBER BASAURI**

**Pandemian kozinaturiko proiektua da Petit Goxo. Iraide De Paulak Ekonomia ikasi du eta administrari lez lan egin du. Baina, itxialdian, proiektu propioa hasteko gogoa**

SAN  
ROKE  
BARRIA

**sukia**  
Zure etxean zaude Estás en tu casa



Proiektu berria Durangon,  
efizientea eta terraza zabalekin.

INFORMAZIOA

946 46 20 41  
www.sukia.com